

uk

66. zenbakia / 2004 uztailak 25



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Itzalak. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Gorka Vázquez.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko batzokia.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 24.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Bertso jaialdi mundiala. Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. Leherketa maritimoan, 1973. Alfredo Aldai.
- 30. BERBETAN. Alain Goikoetxea. Unai Brea.
- 32. FOTOGRAFIA. Jazz Getxo 2004. Juan Gómez.

KULTURA ETA AISIA

- 38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Obabakoak.
- 39. MUSIKA. Getxoko Folk jaialdia. Diskoen erreseinak.
- 40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Santxo Jakituna Fundazioa.
- 41. KOMUNIKAZIOA. Canal Vasco eta EITBren audientziak.
- 42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 43. ELKARRIZKETA. Koldo Isusi. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 44. AKABUKO PUNTE. Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 46. URIBERTSOAN. ALBEkumeak eta gainera Nahikari Ayoren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan bat? Esaterako Arrantzale tabernan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Algortako Jupiter futbol taldea, 1954.
- 54. AITORMENAK. . Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Juan Gómez (Jazz Getxo 2004)



30 Alain Goikoetxea

Berbetan

Munduko skaterrik onenetakoa da Algortako gazte hau. Beragaz egon da berbetan Unai Brea gure kazetaria.



10 Iñaki Zarraoa



41 Josu Amezaga



26 Bertso jaialdi mundiala



32 Jazz Getxo



54 Julian Iantzi



Fermin Muguruza & Kontrabanda «komunikazioa tour»

5 disko

oparitzen ditugu

zozketan parte hartzeko UKra deitu (94 491 13 37) eta eman izena edo e-mail bat bialdu (uk@aldizkaria.biz). Zozketan UK diruz laguntzen duten lagunek baino ezin izango dute parte hartu

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantz Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Itzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buerxosa, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiaetzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



BERANGO UDALA

Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandio Udala

Aldizkari honek Erandio Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandio Bertsotz Euskaraz elkartea laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Fundación Grupo Eroski
KONTSUMITZAILEAREN TITULUA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Bagoaz oporretan: iraila arte irakurle!

Ondo irakurri duzu, bai: iraila arte irakurle! Betiko legez abuztuan oporrak hartuko ditugu aldizkari honetako behargin nekatuok, irailean indarberriturik UK berri bat zuenganatzeko.

Bagoaz oporretan, bai, eta pozik ere bagoaz, ondo egindako lanak ematen duen lasaitasun horrekin goaz-eta. Izan ere oso gustura lotu gara opor aurreko ale honekin. Munduko skaterrik onenetakoa den Alain Goikoetxea algortarra ezagutu dugu, sarritan denon ahotan egoten den Iñaki Zarraoa Getxoko alkatearen bulegoan egon gara, Juan Gómez argazkilariak Getxoko jazzaldian egin zituen argazki paregabeak utzi dizkigu, beste argazki historiko bat ere argitaratzen dugu aldizkariko erdiko orrialdeetan (Alfredo Aldaik orain dela hogeit urte Maritimoa lehertarazi zutenekoan egina), Euskal Herriko bertsolari onenek Getxon eskaini zuten saioan egon da gure argazkilaria... Aldizkari honek hartzen duen eremuko herrietan gertatu diren makina bat ekimen eta gertakizun interesgarri ere aurkituko dituzu orrialdeotan, irakurle. Esaterako, Txernobilgo zentral nuklearraren hondamendiaren eraginez gaixotutako haurrekin egon gara Plentzian, Erandiori buruz argitaratu berri den argazki liburuaren berri dakargu, Munarrikolandan dauden trikuharrien arrastoak ezagutzeko egingo den ibilbidearen arduradunekin berbetan egon ginen, herrietako jaien berri ere jaso dugu... Pozgarria da guretzat eskualdeari bizitasunik eta bizitzarik badariola egiaztatzea. Abuztuan ere hainbat gauza gertatuko dira, baina horiek iraileko zenbakian argia ikusi arte itxaron beharko dute.


Iraila arte, beraz, eta tartean, esaera zaharrak dioen moduan: “ondo ibili, gitxi gasta eta bueltak amari!”. 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



GORLIZ 200ko SAN PEDROAK

Itzal itzelak / Zeozer dauka beti gerizpeak, itzalak, bizidun batena zein gauza batena izan, gure arreta hartzen duena, eta sarri, barrua ikutu eta mugitzen diguna: nork ez du miretsi eta gozatu arbol edor baten gerizpea, nor ez du asaldatu espero gabeko norbaiten itzalak... Gure argazkilariak Gorlizen harrapatu zuen irudi honetan ondo ezagun dugun musika-tresna baten joleak agertzen zaizkigu, baina nahiko ixura ezohikoan, beheko su batek gorantz bidalitako forma luze, argal eta misterioitsuak balira bezala. Itzal hauek bezain itzelak izango ote ziren benetako gorputzak? / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Etxaola

Gazte gara gazte

Gazte gara gazte eta ez gaude konforme abesten zuen aspaldi batean Lurdes Iriondok, oker ez banago, *Gu gazteok gaur gabiltza mundu galdu honetan* Benito Lertxundik. Eta badirudi gauzak ez direla hainbeste aldatu, Getxon behintzat ez. Hainbat gazte ez dago batere konforme Udalak gazteteen ekimenei eman eta ematen dien erantzunarekin, eta hor dabilta galduta kaleetan zehar.

Arazoa egon badago, eta uste dut Udalak ere onartzen duela hori, baina nola egiten dio aurre? Oker ez banago badira urte batzuk Getxoko Udalak Gazte Plana abian jarri zuena. Beno, diagnostikoa behintzat egin zuen, ez dut pentsatu nahi zenbat gastatuko zuen horretan, baina egin du besterik? Diseinatu du planik? Nik neuk ez dakit, eta gazteek beraiek ere ez dakitelakoan nago.

Baina, kontuan izanda azterketa haren arabera gazteen %74k gurasoen etxetik alde egin nahi duela, % 71 edan egiten duela eta % 70 herritik irteten dela asteburuetan, ze kalte egin dezake gaztetearena bezalako ekimenak? Hain ona al da Udalaren plan “ezezagun” hori besteei aukerarik txikiena ere ez emateko? Nola aseko ditu gazteen beharrak, 2004-2007 legealdiko planaren ardatz es- traegikoetan agertzen den lege? 4

ESKOLA LAGUNTZA

- Matematika, Fisika...
- Maila guztiak

10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

IRITZIA

Getxon gaztetxe baten beharra aldarrikatzeko manifestua aurkeztuko diete Gazte Asanbladako kideek herriko eragile guztiei. Behekoa manifestu horren laburpen bat duzue.

Gaztetearean alde

Algorta eta Erromoko gazteak batzea erabaki dugu gure nahiak aurrera eramateko eta udaletxeari beharrezkoa zaion presioa eragiteko. Garrantzitsu ikusten dugu oku- pazioaren aldeko mugimendutik herriari, gure ideiak eta eskaerak zeintzuk diren jakinaraztea.

Zergatik okupatzen dugu?

Gustatuko litzaiguke adieraztea gazteen arteko harrema- na inkomunikazioan murgilduta ematen dela, eta inko- munikazio egoera horretatik indibidualtasuna eratortzen dela. Honen ondorio zuzena, edozein motatako gazte- antolakuntzaren gabezia edo jaitsiera izanik; bai gizarte mailan, maila kulturalen zein langileri-antolakuntzan. Ekimen bateratuen falta gero eta nabarmenagoa da, elkartzun aktiboa apurtuz eta beldurra eraginez. Beldurra ugazabari, etorkizunari...

Indibidualtasuna

Kultur mailan daukagun eskaintza ez da inola ere parte- hartzailea, herritarrek jasotzaile pasibo huts bihurtuz. Gure udaletxeek darabilen politika elitista, kapitalista eta kontsu- mista honek, gure herriak izan duen izaera partehartzailea desagertzea eta herri identitate galteaz dakar. Inguruetan eraiki diren makrozentroek, denda txikiak eta antzekoak ixtera behartzen dituzte, familia hauen patua kondentatuz. Ez dugu herri hil bat nahi, ez dugu egoitz-herria nahi. Honen eta beste zenbait gairen azterketak, altematibak erai- kitzera bultzatu gaitu.

«Ez dugu herri hil bat nahi, ez dugu egoitz-herria nahi»

photoshop > katxalotea Portu Zaharrean



Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez

Gaztetea gazteontzako leku aske eta autogestionatua da, non erabaki guztiak asanbladaren bitartez hartzen diren. Gaiak guztion artean eztabaidatzen dira emandako argu- dioak kontutan hartuta erabakietara helduz. Gazteteak ekimenak dituen auzoa du gogoan beti: prestakuntza saioetarako-aretoak, ikastaroak, jai batzordeak...

Gaztetearekin zera lortu nahi dugu: indibidualtasu- na eta giza-inkomunikaziorik egongo ez den herri parte- hartzailea eraiki, gazteen kritikotasuna eta mugitzeko gogoak piztu eta gure herriaren eraikuntzan partehartzaile izan. Azaldu nahi dizuegu, gure proiektua sendoa, eraikitzailea eta zilegia dela. Zuen gazteak direla herriaren aldeko babesa eskatzen ari direnak. Eta bide batez, herriak gaztete barik zer galdu eta irabazten duen balo- ratzea nahi dugu.

Getxo egoera lamian dago. Udalak ez dio gurekin hitz egiteko eskakizunari jaramonik egiten. Jasotzen dugun erantzun bakarra –eta gure ilusioa eta indarra bertan behera uzteko asmoz ematen dena– errepresioa da: gazteteak desalojatu, polizia bidali, gazteak indentifikatu, gure aurka- ko ekintza judizial eta administrazioak...

Hau guztia eta azken asteotan Algortan gertatuta- ko arazoak kontutan hartuta, okupazioaren aldeko mugimenduak herriaren eta bertako eragileen babesa beharrezkoa dela ikusten du eta horregatik, zuen sina- dura eskatzen dugu. –GAZTE ASANBLADAko kideak



Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO BATZOKIA 1981-2004

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Goian, erakundeetako ordezkariak bertako dortokak askatzen Boluen. Ezkerrean, txoriak harrapatzeko sarea eta sarean jauzitako Martin arrantzale bat.



natura > Bolue bizi-bizirik

Jo ta ke beharrean dabilta Getxoko Udala eta Bolue Ingurumen enpresako kideak padura biziberritzeko asmotan. Orain dela gutxi lanak egin dira bertan eta lurrag mugitu dira paduraren biziraupena ziurtatzeko. Bestetik, hilaren hasieran, bertakoak diren eta ia desagertzeko dauden *galapago leproso* eta *galapago europeo* espezieetako dortokak askatu ziren Boluen. Aipagarria da mota hauek askatzen diren lehen aldia dela. Hau gutxi balitz, padurako animalia moten jarraipena ere egiten dabilta. Sareak erabiliz txoriak harrapatzen dituzte eta gero eratzunak jarri, bertan bizi diren hegaztiak eta euren mugimenduak ezagutu ahal izateko. Aurrerago antolatu nahi den ingurumen gelan ezagutza hau guztia zabaltzea da asmoa. ^m

Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T. 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

bapiruke > 200 haur euskaraz olgetan



Bapiruke programan dauden haurrak begiraleekin, Algortako Zabala ikastexean

Bapiruke euskal tradizioko joko baten izena da, eta berba hau aukeratu zuten Bizarra Lepoan euskara elkarteko lagunek umeentzako udalekuei izena emateko, programaren filosofia ederto adierazten du eta: jolasaren bitartez haurrek euskaraz ondo pasatzea. Beraz, aurten euskara elkarteko kideek, Aldundiaren eta Udalaren laguntzaz, bigarrenaz antolatu dute Bapiruke, bai eta arrakasta handia lortu ere. Izan ere, hiru txandatan banaturik eta 15 begiraleren zaintzapean, 250 haurrek hartu du parte Bapiruken. Toki barik geratu den umerik ere izan da. Zorionak beraz Bizarra Lepoan-eko lagunei! ^m

kale izendegia > Novia Salcedo



XIX. mendeko politikari eta idazle bilbotar hau Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu eta diputatu nagusi izan zen; hain zuzen ere, bere agintaldian eraiki zen Gernikako Juntetxea. Karlistada garaian Pedro Novia de Salcedok ez zuen gerran parte hartu gura izan, eta Aragoira joan behar izan zuen. Beti foruen alde egin zuen: horien aurkako propaganda areagotu zenean, *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa* liburua idatzi zuen 1851n; bertan, foruen aldeko jarrera sutua azaldu zuen. Lan ezagun hori baino ez zuen argitaratu Novia de Salcedok, baina beste bat ere idatzi zuen: *Diccionario etimológico del idioma bascongado* (1887an ikusi zuen argia, egilea hil zenetik 22 urte pasata). Aretan dago berari eskainitako kalea. ^m

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

etorri
eta
ikusi!!

MOROTXO

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Iñaki Zarraoa > Getxoko alkatea

“Gazteak, hemen bizi nahi baina kanpora joan behar badu, itzultzeko esperantza ez dezala galdu”

Orain dela 5 urte hartu zuen Iñaki Zarraoak Getxoko alkatezta. 27 urte bete zituen arte Bilbon bizi izan zen. Ezkondu eta Getxora etorri zen bizitzera “*garai hartan Getxoko etxebizitzak merkeagoak zirelako*”. 58 urte dauzka orain eta Fisika Ingeniaritzan lizentziatua da. Irakasle izana da, ETBko zuzendari gero, eta 2007ra arte, gutxienez, Getxoko alkatearen aulkian jarariko da.

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edo zergaitik egin ezin duzuna.
—Hainbeste gauza... egiten ari gara zerbait. Ezinean dabilen jende guztiari behar bezala lagundu nahiko nioke; eta etxebizitzarik ez daukatelako independente bizi ezin daitezkeenei etxebizitza eskaini.
—Etxebizitza bila askok udalerritik kanpora egin behar du. Zer esango zenieke?

—Hori ez dela tragedia bat, hori askotan gertatu izan dela. Ni Bilbon bizi nintzen eta Getxora etorri nintzen etxebizitzak merkeagoak zirelako. Benetan hemen bizi nahi badu eta kanpora joaten baldin bada, esperantzarik ez dezala galdu esango nioke, etortzeko aukera edukiko duela. Motel ari gara, baina ari gara etxebizitzak egiten. Banatu ditugu 80 eta piku etxebizitza, eta ea legegaldi honetan beste 200-300 banatzeko moduan gauden, horrekin dana ez dugu konponduko, baina zati bat bai.
—Egin al duzu zeozter egin gura ez zenuena?
—Nire borondatearen kontra? Ez dut uste. Galdetzen badidazu egin ditudan gauzetatik zeintzuk egingo nituzkeen orain beste era batera... bilutzik joatearen auzi hori, arrazoia neukan nik uste, baina beharbada beste era batera eraman nezakeen.



Iñaki Zarraoa Getxoko alkatezako bere bulegoan

—EAJko barne-hauteskundeetara aukeztu zinen, baina ezin izan zenuen irabazi.
—Nik uste, ona da barruko prozesu horietan hautagai bat baino gehiago egotea. Nahiz eta ideologia arloan ezberdintasun handirik ez egon, estrategia inguruan eta askotara pentsatzen da alderdi guztietan, eta gurean ere bai.

“Jose Antonio Agirre beti izan da nire eredia, eta beti egon da gure bizitzan oso presente”

Esperientzia berria izan da. Emaizak niretzako ez dira txarrak izan, nahiz eta irabazle ez gertatu, nire kontzientziarekin oso lasai nabil.
—Irakasle izan zinen, gero ETBko zuzendari eta gaur egun alkate. Herriaren aurrean egotea edo beronen gidari izatea zelan bizi

duzu?
—Gidari baino nik uste gehiago da herriarentzako lan egitea. Uste dut kargu publikoen izaera hori izan beharko litzatekeela. Kargu publiko guztietatik alkate izatearena izaten da gogokoena, nahiz eta batzuetan oso zaila izan. Bestalde, gertuago ikusten dituzu arazoak, errazago ikusten dituzu zure erabakien emaitzak, jende askori laguntzen diozu, nahiz eta guztiei ezin. Horrelako karguak, lasai eta zure kontzientziarekin bat etorritik eramanaz gero, aberasgarriak dira.
—Agirre ere Getxoko alkate izan zen, eta gero lehendakari. Zelan ikusten duzu zeure burua beragaz alderatuta?
—Ezin daiteke alderatu, nire burua oso urruti ikusten dut, nahiz eta beti nire eredia izan den. Agirre oso pertsonaia berezia izan zen, eta toka-

tu zitzaion garaia ere bai. Beti mirestu dugu gure etxean, gure gazte koadrilan bere ilobarekin ibiltzen ginen, beti egon da gure bizitzan oso presente. Berarengandik gustatzen zaidana da abertzale-abertzalea zela -baina jendearekin hitz egiteko gauza ere bazen-, eta gizarte sensibildade hori zeukala. Ezkertiarra zen, eta langileen, pobrezia, eta baztertuen arazoak oso oso barruan eramaten zituen. Niretzat helburu horiek bai izan direla gidari, nahiz eta berak bezain ondo ez eraman aurrera.
—Zelan bizi da euskara Getxon?
—Oso ondo ez, euskaldun kopuru txikia garelako. Baina azken urtetan kopuru hori igotzen ari da. Niretzako garrantzitsua zera da: ikastoletatik eta D eredutik pasatutako neska-mutilak, gaur egun gurasoak direnak, hasi direla beren umeei euskaraz egiten. Familia barruan berriro ere sartu da euskara, eta hori etorkizunean nabarmenduko da. Baikor nabil etorkizunari begira.

«Gazteen aisialdirako azpiegituri, programei eta abarrei dagokienez badakigu oraindik erren gabiltzala»

—Gazteak aisialdi alternatiborako egoitza bila dabilta. Zer duzu eurei esateko?
—Nire ustez, aisialdi alternatiboa nahi dutenek eurek bilatu behar dute. Udalak eskaini behar duena aisialdia da, ez alternatiboa, eta aisialdirako azpiegiturak, programak etab. Badakigu horretan herren gabiltzala. Gazte Plan bat onartu genuen iaz, eta hori garatu behar dugu. Gazteen arazoa ez da bakarrik aisialdiarena, besteak beste, etxebizitzarena edo lanarena ere badira, aisialdiarena baino garrantzitsuagoak gainera. Baina aisialdia ere hor dago, eta orduan, udal muduan, ahalegina egin beharko dugu orain dauzkagun azpiegiturak-eta indartzeko edo zabaltzeko, eta programak behar bezala egiteko. Aisialdi alternatiboa nahi dutenek, berriro diot, beraiek topatu behar lukete.
—Kultura arloan hamaika ekitaldi entzutetsu antolatzen dira herrian. Getxok Bilbori itzal egin gura ei diola entzun da.
—Hemen aspalditik oso tradizio handia dau-


kagu kultura arloan, eta Kultur Etxearen bitartez antolatzen diren gauzak oso garrantzitsuak dira: guk hortik jarraitu behar dugu. Ez dakit Bilbori begiratu behar diogun ala ez, Bilbok bere gauzak egiten ditu, guk geureak. Uste dut gure kultur ekintzak herriari lotuagoak direla,

«Getxon euskaldunen kopurua igotzen ari da, eta etorkizunari begira baikor nago»

eta Bilbokoak elitekoagoak. Guk geurean jarraitu behar dugu, ahaztu gabe kultura ez dela jaialdietan bakarrik egiten, eguneroko bizitzan ere egiten dela. Niretzat garrantzitsua da Getxon dagoen mugimendu kulturala: abesbatzak, dantza taldeak... hor egosten da kultura eta horri eman behar zaio garrantzia.
—Udan Bilbotik hona etortzen zinen eta Portu Zaharreko jai batzordean parte hartzen zenuen gainontzeko udatiarrakaz batera. Orduko zein oroitzen duzu?
—Guretzako Algorta zen, ez zen Getxo, gu Algortara etortzen ginen. Oraingo Algortarekin alderatuta oso bestelakoa zen, askoz jende gutxiago bizi zen. Betiko Algortarren eta udatiarren artean ere... ez dakit, “liskarrak” egoten ziren, bazegoen hor elkar konpontzeko ezina-edo. Poliki-poliki sartzen hasi ginen, eta jendeak onartu egin gintuen. Beste alde batetik, uste dut garai hartan jaia alaiagoa zela. Alkoholak bazeukan presentzia, baina ez orain-agoa bezalakoa, askoz xumeagoa baino. Oso jai politak, herritarrak, ziren eta danok parte hartzen genuen, mutilek eta neskek, gurasoek... gauza handirik ez geneukan, baina bai alaitasuna eta parte hartu nahi hori.

GETXO

- Biztanleak: 84.009
- Herriaren azalera: 12km koadro
- Udala: 25 zinegotzi: EAJ 9, PP 9, PSOE 3, EA 2 eta EB 2
- Euskaldunak eta ia euskaldunak: 15.962 (%19) eta 26.883 (%32) = 42.845
- Erdaldunak: 41.164 (%49)



—Zein da zure Getxo perfektuaren irudia?
—Getxora industria garbi gehiago ekarri beharko genukeela uste dut, jendea hemendik kanpora irteten da lan egitera, eta hori ez da ona. Beste alde batetik, kultura arloan azpiegitura batzuk ere falta zaizkigu. Eta perfektu izateko, azkenean, jende guztia egon beharko litzateke egoera onean, eta ez dakit, behin ere lortzerik egongo den, baina hori lortzeko beharko genukeena da langabeziarik ez egotea, elbarrientzako zerbitzuak, jende guztientzako etxebizitzak, aisialdi egokia jende guztientzako... Uste dut oso herri ona daukagula, eta une honetan gabiltzala, alde batetik, kultura arloan azpiegitura gehiago jartzeko, eta adinekoentzat ere, gero eta ugariago izango direnez, beharrezkoak diren eguneko zentroak eta zaharren egoitzak egiten, eta era berean, elbarriak diren edo ezintasunen bat daukaten pertsonentzat mugitzea errazago bihurtzen. Baina perfektiorako, seguru gaur helburu batzuk jarri bai baina gero beste batzuk jarriko ditugula...
—Interesa ei du, zenbateko soldata duzu?
—Eudelen barruan akordio bat egon zen, zeuden alderdi guztien artean (PSOE, PP, EA, EAJ eta EB) eta erabaki zuten udal administraziokoak foru administrazio eta Eusko Jaurlaritzakoekin gertu egon beharko liratekeela. Getxorentzako eta Getxo bezalako herrientzako erabaki zuten Jaurlaritzako sailburuorde batek jasotzen duena gehi %5 zela soldata, eta hori da nirea. m

BAST

taber

BAST

taber

Kresaltxu 1, Tel 94 464 04 01

BRIXTON

DENDA

Ropa & Música

C/ Kresaltxu 4 - Erromo

Getxo - 48930 - Bizkaia

Tel./fax: 94 464 81 04

brixton@euskalnet.net

www.euskalnet.net/brixton

moda gaztea

opariak

IRATI

Torrene 2, ALGORTA

T.: 94 491 12 71

GA

GALEA

ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA

JURIDIKOA, FISKALA

LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12

Fax: 94 491 11 31

OSABIDE?HORTZ?KLINTKA

Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra

Ortodontzia

Periodontzia

PAIDI

Bidebarri 27, behea es

ALGORTA 94 94 430 76

[erromo]jaietan]



Erromo eta Pinuetako festak prestatzen dabiltzan jai batzordeko kideak

Erromo eta Pinuetako jaiak

Jai egunak eta festa guneak banatu ditu jai batzordeak, getxoztarrek eta leioaztarrek goza dezaten

Erromoko jai batzordeak festa giroa gune bitan banatzea erabaki du aurten. Izan ere, Leioako Pinueta auzoa Erromotik oso gertu dago, eta aurten auzotar horiengana ere jaia hurbiltzeko ahalegina egingo dute batzordekoek. Horren albotik, orain arte lau egun iraun duten Erromoko jaiak aurten aste bete iraungo dute. Abuztuaren 2tik 4ra jaigiroa Cervantes plazan (Pinueta) egongo da, eta eguenetik domekara jaigune nagusia Xake plaza izango da (Erromo). Jaiak prestatzeak gutxi gorabehera 66.000 euro hartuko du. Aurten jai batzordekoek aurreikusten dutenaren arabera, Leioako udalak gutxi gorabehera 6.000 euro emango die, eta Getxoko udalak 21.000 euro. Hala ere, azken kopuru horren %30 udalak jaiak igaro arte gordetzen du:

Getxoko udalak jarritako betebeharrak betez gero eskuratuko du jai batzordeak. Iaz 4.800 euroko isuna ezarri zitzaion Erromoko jai batzordeari, eta diru hori berreskuratzeke, laguntza txartelak ipiniko dituzte salgai. Bestalde, goraipatzekoak dira tabernekek eta dendek ematen dituzten diru-laguntzak ere.

JAKINGARRI

- Jaiak Pinuetan:** Cervantes plazan. Abuztuaren 2tik 4ra.
- Jaiak Erromon:** Xake Plaza. Abuztuaren 5etik 8ra.
- Egitarau osoa:** www.erromo.tk
- Aipatzekoak:** Gobela ibaitik jaitsiera (natura errespetatuz), Kuraia eta Banda Bassottiren kontzertuak, 7. ska-reggae jaialdia, musika klasikoko entzunaldiak...

PORTU ZAHARREKO JAIK ABUZTUAREN 11TIK 15ERA

Abuztuaren 11tik 15era egingo dira aurten Portu Zaharreko jaiak. Jai Batzordea osatzen duten 12 bat lagunek dena ia prest daukate, eta hona hemen antolatu dituzten ekintzetako batzuk: Abuztuaren 12a umeen eguna izango da, hilaren 13an 10:00etan hasiko da sokamuturraren lehenengo ekitaldia, eta hurrengo egunean 10:30ean ekingo diote berriro ere sokamuturrari. Abuztuaren 14ean ospatuko da antzar eguna: arratsaldeko 16:00etan dago jarrita hitzordua. Eta jaien azken egunerako, marmitako txapelketa eta pijama erakustaldia daude iragarrita.

[algorta]jaietan]

San Inazioak prest!

Abuztuaren 29an hasi eta **lau eguneko** festagiroari eutsi beharko dio Algortak



lazko San Inazio jaietako festagiroya

San Inazio jaiak hasiera emango dion pregoi-irakurtzea aurten Bentzaiak taldeak egingo du, uztailaren 29an arratsaldeko 18:30ean. Pregoia entzun eta 4 eguneko jaigiroan murgilduko da Algorta.

Jaien lehenengo egunean azpimarratzekoak diren ekintzen artean daude sardina jana eta gaueko kontzertuak: Odd Heathenish, Sei Urte eta EH Sukarra (Telletxe), eta Ghetto P'álante taldearen karebeko doinuak (Kasino). Bestalde, jaien azken eguna ere ekitaldiz gainezka dago, besteak beste, Txipiroi txapelketa (Bihotz Alai), Jota eta Arin-arin txapelketa (Kasino), saharauiar



herriarekiko elkartasun ekitaldia (Telletxe), bertsolariak (Kasino), umeen txokolatada, ES3IN dantza-antzerki ikuskizuna (Telletxe), eta Eneko Caballero VI futbito txapelketaren finala (Batzokian)... San Inaziotan, beraz, ez da egongo, ez, aspertzeko aukerarik. m

EGITARAUA

- Uztailak 30, barikua**

12:00. Haurrentzako jolasak (Bihotz Alai)

13:00. Bertsolariak (Kasino)

19:00. Nagusientzako dantzaldia Galea taldeagaz (Zabala eskola)

20:00. Sardinada (Salem taberna aurrean)

21:00. Mr Frack kale animazioa

23:00. Kontzertuak: Hard Polution, Patada en papada eta Afrika
- Uztailak 31, zapatua**

09:00. Txirindularitza lasterketa

12:30. Euskal Dantzak (Telletxe)

13:00. Bertsolariak (Kasino).

17:30. Estropadak: 26. Getxoko ikurriña

19:00. Trontzalarien Bizkaiko Txapelketa

23:00. Kontzertuak: Izotz (Txiki Otaegi), Soul Fingers (Kasino)

A

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

WKG

SUKALDEETAN ADERTUAK GARA

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta

Tel/Fax: 94 430 11 91

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45

ALGORTA

BAR

ERROMO

Adituak gara pintxoetan!!

Torrene z/g ALGORTA

T.: 94 460 50 42

KALA

kantarepe

B A R

SAN INAZIO

ZORIONTSUAK

PASA!!!

EUSKAL HERRIA, 22

ALGORTA

SALSIDU

TABERNA

Jaietan, giro jato

San Inazio zoriontsua

Salsidu 9, ALGORTA

12 UK

UK 13

Ereagako igogailua

Ereagako hondartza eta Maria Cristina parkea lotuko dituen igogailua egiteko lanak hasita dagoz, eta 1.396.686 euroko kostua edukiko dute. Datorren urterako igoigailua martxan egotea espero dute udal arduradunek. Igo-gailuak funikular itxura edukiko du, 43m-ko altueraraino igo eta jaitsi ibiliko da, 75 m-ko ibilbidean. Horren albotik, 14 bat pertsonarentzako lekua edukiko duen igogailu honetako bidaia txartelak, oraindik zehaztuta ez badago ere, 20 edo 30 zentimo balioko du. ^m

Hasita dagoz igogailuaren lanak



GETXO EKINEAN EGITASMOA AURKEZTUTA

Enplegua Indartzen egitasmoaren lekua Enplegua Indartzen Plus planak hartu zuen iaz, eta aurten Getxo Ekinean egitasmoaren txanda da. Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten getxoztarrak laguntzeko helburua dauka Getxo Ekinean-ek, eta horretarako 625.000 euroko aurrekontua edukiko du. Zenbateko hori Getxoko udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Europako Fondoak finantzatzeko dute.



Gazteak bilduta, Ertzaintzak kanpaldia amaiarazi eta gero, uztailaren 13an

Gazteak etxe barik

San Nikolaseko kanpaldia deseginda ikusi ostean, etorkizuna antolatu nahian dabilta gazteak

San Nikolas plazak ia aste bi eman ditu kanpin-dendaz jantzita hile hasieran. 30 bat gaztek bere egin zuten plaza, euren jarduerak aurrera erodateko egoitza baten beharra aldarrikatzeko.

Ekainean, Algortako Okupazioaren Aldeko Mugimenduko gazteek etxe huts bat okupatu zuten Aixerrotan. Alabaina, handik gitxira Getxoko udalak etxe hura bertan behera bota zuen. Hala ere, gazteek ez zuten etsi, eta Urgull kaleko Kultur Etxe ohia bere egin zuten, baina babesleku honek ere ez zuen luzaro iraun. *“Kaletik ezin bota”* zaitzaketela pentsatuz eta euren aldarrikapena entzunarazteko, San Nikolas plazan jarri zituzten kapin-dendak. 13 bat egun iraun zuen kanpaldian hain-

bat ikastaro eskaini zituzten, bai eta hitzaldiak, gauetan filmak... eta euren aldarrikapenak eta nahiak azaldu eta jarduerak aurrera erodateko egoitza baten beharra dutela adierazteko, Iñaki Zarraoa Getxoko alkateagaz hitzordua jartzen saiatu ei ziren. Baina gazteek esan ziguten legez, *“alkateak ez du gugaz berba egin gura izan, guk berba eginez konpo-du gura izan ditugu gauzak, baina hitzen bidez gutxi lortu daitekeela ikusi dugu*. Hala ere, Gazte Mugimenduaren azken batzarrean, oraingoz etxe huts gehiago ez okupatzeko “erabakia” hartu ei zuten, beti ere argi utzita ekintzak aurrera erodateko egoitza baten beharra daukatela. ^m

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BEROGAILU ETA ITURGINTZA



Sarrikobaso 15

Hamar urte beteko ditu aurten Kantxa Kirol Modak antolatzen duen herri krosak



X. Kantxa Kirol Moda herri krosa abuztuaren 1ean korrituko da. Argazkian iazko irudi bat

Herri lasterketa abuztuaren 1ean korrituko da San Inazio jaietako egitarauaren barruan. Hiru urtetik gorako edozeinek parte har dezake, eta horretarako Kantxa Kirol Moda dendan izena eman baino ez da behar. Ibilbidea, adinen arabera, 300 eta 2.000m artekoa izaten da eta guztira hamar bat lasterketa egiten dira. Partehartzaile guztiek Kantxak oparitzen duen kamiseta jasoko dute.

Orain dela hamar urte antolatzen hasi ziren Kantxakoak herri kros hau Getxoko

Atletismo taldearen laguntzaz. Urteek aurrera egin ahala partaidetzak ere gora egin du: lehenengo aldian 150 lagunek parte hartu zuten; aurten, ostera, 500 korrikalari biltzea espero dute antolatzailcek. Kirolzale handiak dira Kantxakoak, eta krosa jaietan antolatzen duten ekitaldirik handiena bada ere, jaietako kirol egitarauaren ardura osoa euren gain hartzen dute: esaterako, futbito zein saskibaloï partidak antolatzen dituzte egunero San Inazioetan. ^m **Harremanetarako: 94 491 18 82**

KIROL EKITALDIETAKO EUSKARAREN ERABILERA AZTERTUKO DA

Getxo Euskalduntzeko Hitzarmenaren (GEHI) barruan beste aurrerapausu bat eman gura du udalak. Hitzarmen honen bitartez, udalak gazte elkarteetan euskararen erabilera zertan den aztertu du dagoeneko, emaitzak ere orain dela pare bat hilabete plazaratu zituen, eta erabilera sustatzeko zenbait egiteko zehazten dituen egitasmoa prestatu du. Oraingoan kirolaren txanda da, eta kirol elkarte, talde eta orohar Getxon gauzatzen diren kirol ekitaldietan euskararen erabilera aztertuko duen ikerketa bat egiteko asmoa dauka udalak. Azterketa hau burutzeko lanak eta plan estrategikoa beste enpresa batek egingo ditu, eta udalak 25.000 bat euro ordainduko du lan horrengatik.

JENDETZA HANDIA ESPERO DA AIXERROTAKO LANDETAN PAELLA EGUNEAN

Uztailako azkenengo domekan, hilak 25 beteko dituenean, paellaz beteko dira Aixerrotako landak. Kontuan hartuta paella bakoitzaren inguruan zenbakaitza den sukaldari kopurua batuko dela, eta paellajaleak sukaldariak halako hiru erraz izango direla, eta beste barik egunpasa hurbilduko diren ugariak... ez dago azti baten beharrik jendetza izugarria batuko dela aurreikusteko. Aurtengo paella eguna 49.a izango da, eta beraz, urte bakarra falta zaio festari urrezko etzeiak ospatzeko. Amaitzeko, goraipatzekoa da Itxas-Argia elkarteak egun hori prestatzeko egiten duen lana.

RENAULT **ocasión**

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km”dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT BILBO BERRI
Bizkerre/k.z/g. - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Itsaso Ruiz > albaitaria

“Bokaziozko lanbidea da albaitariarena”

Gero eta animalia gehiago dauzkagu Leioan. Hala dio behintzat Itsaso Ruiz albaitariak, *“batez ere, txakurren kopuruak egin du gora”*. Artatza kalean daukan animalia klinikan etxeko abereak zaintzeko zerbitzu guztiak eskaintzen ditu, hala nola erradiografiak, txip-ezartzea, kirurgia, txertaketa, ile-apaindegia... Albaitariaren esanetan, orohar nahiko ondo zaintzen ditugu gure animaliak, baina, *“gastua ohikotik aldentzen denean egoten dira zenbait*

“Jendeak uste du katuak etxean egoteagatik ez direla gaixotuko eta ez dutela zaintza berezirik behar”

kexa”. Gainera, hemen ez omen dago katuak zaintzeko ohiturarik, *“jendeak uste du etxean egoteagatik ez direla gaixotuko eta ez dutela zaintza berezirik behar”*. Txakurrekin, ordea, jabeak badaki zer txerto eta zer zaintza behar dituen.

Animaliak asko maite zituelako sartu zen Itsaso albaitaritz munduan, eta gainera, beraren arabera *“halabeharrez bokaziozko lanbidea da albaitariarena”*. Hala adierazten digu gaur egun daukan txakurraren istorioak. Egun batean sakrifikatze-
ra ekarri zioten txakurra, eta animaliaz



Argazkietan Itsaso Ruiz eta Leioako bere klinika

penatuta, berea izango zela erabaki zuen.

Orain, uda dela-eta oporretara joateko animaliak abandonatzen dituztenei dei egiten die; *“gutxienez aurpegia eman dezatela, eta animalia beste jabe bat bilatzen ahalegindu”*. Izan ere, asko dira egun hauetan jabeak oporretara joateagatik kalean geratzen diren animaliak. Jendeak jakin behar du ardura bat daukarela animaliarekin, eta *“gaur egun badago bestelako irtenbiderik”*.
m



ERROTULOAK

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**
e-mail: hirustab@euskalnet.net

**udondo
taberna**
eguneko menua eta afariak
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Abuztua eta irail bitartean ospatuko dira herriko jai gehienak



Txistulariak jaietan 20ko hamarkadan

Eguzkiaren urtaroa, hondartzaz gozatzeko unea, gorputz beltzaranak erakusteko garaia. Udan gaude eta eguraldi ederrarekin batera Euskal Herriko txoko guztiak jai giroan murgiltzen dira. Leioa ez da salbuespen izango. Horregatik, San Joan gauean udari ongi etorria eman ondoren herriko auzoen txanda dator; Santimami, San Bartolome, Ondiz, Udondo edo Txopoetako auzoek festaren lekukoa hartuko dute herritarren gozamenerako.

Urte askotan leioaztarrek ospatu dituzten jai hauek aldatzen joan dira denboraren poderioz. Horrela, XX. mende hasierako ospakizun horietan dantza eta musika ziren nagusi. Esaterako, 1935ko Santimamiko egunean herrialdeko jota-

dantzarien lehiaketa, bertsolari lehiaketa, erromeria –txistu eta danbolinarekin– eta esku-soinu taldeen emanaldia antolatu ziren gaueko 8ak arte. 30. hamarkada hartako San Bartolome jaietan, oster, idi-probek erakartzen zuten jende gehien. Tabernariak txosnak jartzen zituzten udalaren

«San Bartolome auzoan garai batean barraskilo lasterketak egiten ziren»

baimenaz, lehiaketak antolatzen ziren –barraskilo lasterketak barne– eta bolanderek gaueko iluntasuna argitzen zuten.

Erromeria hartan ezagutu eta aldare-rako bidea hartu zuten bikote askok. Izan ere, garai hartan, aisialdia oso urria izanik dantzaldia zen aukera bakarra auzokide ez ziren beste pertsonak ezagutzeko. Oraingo jai hauek ere, jende berria ezagutzeko aukera paregabea, eta nork daki... bikotea topatzeko festa giroa baino hobeagorik ez dago-eta. m

EGUTEGIA

- **Santimami:** abuztuak 17
- **San Bartolome:** abuztuak 24
- **Ondiz:** irailak 8
- **Udondo:** irailak 10
- **Txopoeta:** irailak 29

ETXKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON
Lacofris.s.L.
SERVITEC

& 94 430 52 00
Kasune, 18 • ALGORTA

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETEKOKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

**KURKUDI
LIBURUDENDA**
**Euskarazko
irakurgai**
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

**amesti 7sl**

**[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]**
Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

**BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

**ibilaldia**
leioasopelana

Liburua Erandio 122 argazkitan

Liburua Edyfoat enpresaren proiektua izan da. Urte batean zehar bildu edo eginiko 400 bat argazkietatik aukeratu dituzte liburuko 122ak. Erandioko Udalak gogotsu eta pozik hartu zuen enpresaren proiektua, eta liburua argitaratzeko bitartekoak ezarri ditu. *“Gure herria ezagutarazteko tresna egokia da”* adierazi zuen alkateak liburuaren aurkezpen egunean. Liburuak Erandioko historia eta bilakaera erakutsi nahi du, eta horretarako 8 ataletan banatu dute: baserriak, dorretxeak, burdinolak, auzoak eta industria garapena.



Irudiotan liburuan aurkitu daitezkeen zenbait argazki



Erandioztarrak Donibane Lohitzunen



Txangora joan ziren emakumeetako batzuk

Joan den ekainaren 26an Goiherri, Goikoa eta Asuko 77 erandioztar Donibane Lohitzunera joan ziren *Auzoko Herriko Elkarteak* antolatutako bidaian. Bi autobusetan joan ziren eta primeran igaro zuten eguna. Goizean Donibaneraino ailegatu ziren eta bertan eman zuten goiz



osoa, Lapurdi kostaldeko herri horretako jaiak zirenez gero. Bazkaltzeko Behobian egon ziren, eta arrastian Donostian.

Auzoko Herriko Elkarteak urtean bitan antolatzen ditu horrelako txangoak. Donibane Lohitzuneko 2004ko lehenengoa izan da eta irailean izango da bigarrena, nora joango diren oraindik erabaki gabe dagoela. Auzotarren erantzuna ez da makala izaten eta autobusak erraz betetzen dira. Aurten asteburu osoko proposamena ere egin diete antolatzaileei...

Bidaiok antolatzen Iñaki Agirre, Bixente Cubillas eta Karmele Ibarrondo buru-belarri ibiltzen badira ere, Auzoko Herriko Elkarteak orain dela hamar bat urte sortu zen Goiherri, Goikoa eta Asuko auzokoak bilduz auzolanean jarduteko.

DOKUMENTAL ETA UMOREZKO FILM LABURREN ZINEMALDIAREN SARIAK

Erandioko 1. film laburren lehiaketa izan zen Ekainaren 21 eta 26 bitartean. Zinemaldian dokumentalak eta umorezko lanak bildu nahi ziren. Horrela, umorezko 17 film eta beste 15 bat dokumental ikusteko aukera eduki genuen. Zinemaldiaren amaieran lau sari banatu ziren. Dokumentalik onenaren saria Juan Jose Poncek lortu zuen “Maldita calle” filmagatik. Umorezko saria, berriz, Galder Gaztelurrutiak irabazi zuen “913” filmagatik. Herriko filmik onena Nekane Zubiaur eta Aintzane Pagadigorriaren “De frente” izan zen, eta ikusleen saria Luis Hereuk lortu zuen “Gusto exquisito” filmagatik.

ERDI AROA ALTZAGAN

Erandiok denboran atzera egin zuen pasa den asteburuan. Metro ingurua erdi aroko azoka bilakatu zitzaigun, bufoi, malabaris-ta, musikari eta abarrek kaleak beteta. Herri gastronomiaz gozatu eta sabel-dantza ikusi genuen; hala ere, nongo erdi aroan murgildu ginen? Orduko Euskal Herria (ohiturak, hizkuntza, janzkera...) ez zen inon sumatzen. Horrez gain, Altzaga ez da, beharbada, auzorik egokiena horrelakoak antolatzeko, Martiartu dorrea edo Andra Mari eliza inguruak erabiltzeko aukera hortxe egonda, behintzat.

Giro aparta egon zen azokan



SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

TRABUDU

TABERNA

Jai giro jatorra, zatoz!

Trabudu kalea 1 • ASTRABUDUA

T. : 94 467 48 28

Basolanak

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Lorategien zainketa

DEITU!

Trikuharrien ibilbidea

Munarrikolandako zazpi trikuharri edo dolmen lotuko dituen ibilbidea prestatzen dabilta



Berango eta Sopelana udalerrien artean dagoen Munarrikolanda eremuan zazpi trikuharri dagoz. Orain dela hilabete bat inguru, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Sopelanako eta Berangoko udalek trikuharriok ezagutzeko ibilbide bat prestatuko dutela jakinarazi zuten, irailetik aurrerako data baten zabalduko dena.

Trikuharri hauek berreskuratzeko eta ezagutarazteko asmoagaz ibilbide bat egiteko lehen ideia Fernando Bazeta EHUko Arte Ederretako irakaslearena izan ei zen, Bazeta berak azaldu zuen legez, orain dela 7 urte egindako tesian. Azken lau urteotan, sasiak eta landaretza gaiztoa kentzen, bideak trikuharrietatik urruntzen, belar berezia ereiten, dolmenak kokatzeko seinaleak jartzen eta abarretan ibili da Bazeta, eta Juan Carlos López Quintana arkeologoa eduki du lagun lan hauetan. Quintanak adierazi digunez,



Argazki txikian, Munarrikolanda 2 izena daukan trikuharriaren arrastoa. Goian Fernando Bazeta EHUko irakaslea eta Juan Carlos López Quintana arkeologoa

taldekako lurperatze-leku hauek zehatz-mehatz zein garaioak diren ez dago jakiterik, ez delako ezelako indusketarik egin. Munarrikolandako lehen trikua, handiena, 1964an aurkitu zen, 1974an beste 4 topatu ziren, 1981ean bat, eta 2001ean agertu zen azkena. 7 trikuharrietatik 4 dolmenak dira, eta 3 tumuluak.

Bizkaiko trikuharriak

Berango eta Sopelana artean egingo den tri-

kuharri-ibilbide hori Bizkaiko gitxiatarikoa da. Quintanak azaldu duenez, Bizkaiko trikuharri gehienak ikuspegi handiko leketan daude, muinoetan edo eremu altuetan. Bestalde, arkeologo horrek jakinarazi zigunez, trikuharriek, lurperatze-leku kolektiboak izateaz gain, badaukate zeozelako kutsu ekonomikoa, eta lurralde-mugak adierazi ditzakete. Antzinako nekazari eta abeltzainen adierazpenak dira, eta Quintanak dioen legez: *“Gehiago dakigu euren hilobiez, zelan bizi izan ziren baino”*. m

Erdi Aroko Azoka

egingo da abuztuaren 7an eta 8an



Udaletxeko plazak hartuko du aurten ere azoka eta 50-60 postu bitartean ipiniko dira

Erdi Aroko garaietara itzuliko da Sopelana asteburu batez, berriro ere. Datorren hileko lehengo asteburuan, abuztuaren 7 eta 8an, Erdi Aroko giroan murgildu ahal izango dira sopeloztarrak.

Sopelanako Erdi Aroko Azoka antolatzen duten 5. urtea da hau, eta Ricardo Ibarra Informazio, Komunikazio eta Turismo zinegotziak gogorarazi digunez, *“Erdi Aroko Azoka antolatzekeo ideia, arku-jaurtiketako elkartearen ekintzaren bat aurrera eramateko asmoa egin genuelako sortu zen”*. Bost urte igaro dira geroztik, eta *Azoka nahiko finkatuta dagoela* azaldu du Ibarrak. Udaletxeko plazak hartuko du aurten ere azoka, eta 50-60 postu bitarte-

an ipiniko dira. Zapatu goizean zabalduko da bisitariak Erdi Arora garraiatuko dituen pasabidea, eta domeka gauean itxiko dira sopeloztarrak XX. mendera bueltatuko dituzteen ateak.

Ikuskizun berriak

Aurreko urteetan legez, Udaletxeko plazan Erdi Aroko jantziak, kale animazioa (euskaraz zein erderaz), arku-jaurtiketa... azken finean, garaiko bizimodua ezagutzera emateko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da abuztuaren 7 eta 8an. Horrez gain, aurtengo berrikuntzen artean, zirku-jolasak eta zirku-ikuskizunak ikusteko aukera egongo da. m

Instalazio elektrikoak
Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabilioen erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonía, ahots eta datuen sareak



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO



UK aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

LAIK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

Zatoz gure tabernara Erdi Aroko azokan!!

BADATOZ SANTANA ETA SANTODOMINGOAK

Uztailaren 24tik 26ra ospatuko dira Santa Anako jaiak, eta abuztuaren 3tik 5era Santo Domingoak. Santa Ana jaietan aipatzekoak dira uztailaren 24ean Zaki aztiaren ikuskizuna (20:00) eta Sei urte eta Trikitake taldeen kontzertuak (23:30). Hilak 25ean haurrentzako jolas parkea egongo da egun osoan, eta arratsaldean kale antzerkia eta zaldi probak egingo dira. Azken egunean, beriz, aitite-amamentzako dantzak eta hamaiketako egongo da eguerdian, txirindulari lasterketa arratsaldean, gero txotxongilo antzerkia, eta ostean Berango bertso eskolakoek antolatutako bertso jaialdia. Ez da jai sasoi hor amaitzen: Santa Anako jaiak amaitu eta aste batera Santo Domingoak ospatuko dituzte berangoztarrek.

BABES OFIZIALEKO 12 ETXEEK BADAUKATE JABEA

Eskuratu dituzte giltzak Berangoko Lantzarte auzoan eraiki diren Babes Ofizialeko 12 etxebizitzaren ugazabek. Aurrekoetxea kalean dauden 12 etxe hauetako zazpik logela bi daukate eta gainontzekoak 3 logelatakoak dira. Alokairuan eskuratu dituzte etxebizitzok 2002an Etxebiden izena eman zuten 12 berangoztarrek.



Etxebizitzaren giltzak jaso zituzten eguna

Alemaniarra joango dira Simon Otxandategi dantza taldekoak udan



Astelehenetan egiten duten prestakuntza-saio batean harrapatu genituen otxandategitarak

Alemaniarrek euskal dantzak zuzenean ikusteko aukera edukiko dute uda honetan. Izan ere, Simon Otxandategi dantza talde berangoztarrek erakustaldia egingo du Erlangen-en eta inguruko herrietan abuztuaren 50 dantzarik Stuttgart-erainoko hegazkina hartuko dute, eta beste bik autoz egingo dute bidea, dantzatzeko jantzi eta tresna danak eroateko.

Abuztuaren 11tik 18ra egongo dira Berangoko dantzariak Alemanian, dantzari alemaniarren etxeetan. Iaz berangoztarrek hartu zituzten dantzari alemaniarrek etxean, eta aurten euskaldunak izango dira ale-

maniarren gonbidatuak. Bidaia 12.000 bat euroko kostua dauka, eta oraingo dantza taldekoek euren poltsikotik ordainduko dute.

Hainbat jaialditan

Erlangen eta alboko herrietan egingo diren jaialdietan hartuko dute parte Simon Otxandategikoek, eta hiru egunetan eskainiko dute dantza erakustaldia. Orain dela bostasei urte Austria eta Holandan egin zuten legez, dantza-taldeak Alemaniarra egingo duen bidaia honen helbura Euskal Herriko Kultura eta ohiturak ezagutaraztea da. m

Neskato bielorrusiarrek gurean osatzen



Argazkian, 12 neskato bielorrusiarrek dantzaldia amaitutakoan

Bigarren urtez jarraian, 12 neskato bielorrusiarrek oporraldia egin dute Plentzian. Aguraingo *Izaki* Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntzagaz, Plentziako *Ayuda al Tercer Mundo* GKEak 9 eta 10 urte bitarteko neskatoak hartu ditu herrian, sei bat aste eko egonaldia goza dezaten.

Txernobileko zentral nuklearraren hondamendia orain dela 18 urte gertatu bazen ere (1986-04-26), gaur egun oraindik zoritxarrak hainbat gaitz eragiten ditu herritarren artean, batez ere umeengan. Haurron osasuna hobetzeko asmoagaz, hainbat herrialdek Ukraina, Bielorrusia eta Errusiako neska-mutilak hartzen dituzte oporraldietan, eta orain dela 9 urtetik hona hala egin du Plentziak ere. Kasu honetan, 12 neskatoak Minsk probintziakoak dira (Berezino eskual-

dea). Elizaren Etxean egin dute egonaldia, bertan jaso dituzte gaztelaniatzko eskolak, Plentziako uretan ikasi dute uger egiten, eta lagun plentziarrek irakatsi dizkiete euskarazko lauzpabost berba ere.

Dantzatzea eta festak gogoko

Ala Cherniakova neskatoen arduradunak azaldu duenez, Plentziara itzultzeko irrikitan igaro dute urtea, eta osasunez askoz indartsuago ibili direla ere azpimarratu du. Horren albotik, jendearen arreta eta maitasuna eskertu gura izan ditu. Bestalde, neskatoek dantzatzea izugarri dute gogoko, arin ikasi dituzte lagun plentziarrek erakutsitako koreografiak, eta bertako jaietan ere irakargarri gozatu dute. Horrenbestez, osasuntsuago, alai eta beltzaran itzuliko dira etxera uztailaren 31n.

EUSKARAREN EGUNA GORLIZEN, ABUZTUAREN 1EAN

Abuztuaren lehenengo egunean Euskararen Eguna ospatuko dute gorliztarrek. Goizean goiz hasita, Kaleko Pintura lehiaketa, umeentzako ikastaroak eta jolasak, Euskal Dantzen ikastarotxo arinak, ipuin kontalariak... eta hainbat abar aurreikusten dira. Egun osoan zehar egingo dira ekitaldiak, eta Afrika Bibang eta bere taldearen kontzertuak emango dio amaiera egunari. Iberbarri plazan, 22:30ean, aurkeztuko die gorliztarrei Afrikak bere lehenengo diskoa.



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Bagoaz oporretan!



iraila arte



cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnok: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

MUSIKALDIAK GORLIZEN

Musika eskaintza zabala izango da udan Gorlizen. Hilaren 29an dantza eta kanta jaialdia egingo da Iberrebarrin: Etzandarri abesbatza eta Aratz eta Tany (Polonia) dantza taldea entzun eta ikusteko aukera egongo da. Zapatuan Tonino Coscarelli Olarra Fundazioaren kontzertua izango da elizan. Abuztuaren 14 eta 15ean, hurrenez hurren, Iñaki Lagos eta M^a Eugenia Martinezen kontzertua eta Naroa Enekotegi eta Aintzane Basterretxearena, lirikoa, izango dira entzungai.

“RABU” EGUNA EGIN ZEN URDULIZEN HILAREN 10EAN

Urtero legez, uztailaren bigarren asteburuan Rabu Eguna antolatu zuen Txori-Alai elkarteak. Txahal buztanaren egun honetan 64 kazola aurkeztu ziren txapelketara, bere 38. aldian. Herriko lapikorik onena Iretargi taldekoek egin zuten. Urte bian behin omen egiten zaie data honetan herriko nagusiei: aurten 1908an jaiotako Jose Goirigolzarri eta Segunda Urrutiari egin zaie.



PLENTZIA

Prestige-ren hondamena gogoan Ontziren Gelan



Prestige petroleontziak eragindako hondamenaren gaineko erakusketan ikusgai dauden irudiak

Plentziako Ingurumen Gelak (Ontziren Gelak) bere udako ibilbideari ekin dio Ondarretako pasealekuan. Besteak beste, go-raipatzekoa da Prestige petroleontziak eragindako hondamenaren inguruko erakusketak. Galiziako Kazetarien Elkarteak eta Burla Negra-Nunca Mais plataformak egindako 110 argazkik, hainbat euskal erakunderen datuek, eta Martin Diego artistaren irudiek osatzen dute erakusketa. Horrez gain, beste erakusketa bi daude ikusgai: *Balea eta eus-*

kaldunak eta *Planetako ur-biotopoak* (12 ur-ontzi handitan daude biotopoak ikusgai). Ontziren Gela Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen sailak garatzen duen Ingurumenaren Hezkuntzarako programaren barruan dago. Astegunetan 11:30-14:30 eta 16:00-20:00 ordutegian dago zabalik, eta asteburuetan 11:30-14:30 eta 15:00-20:30. Sartzea doan da, eta besteak beste, erakusketak, dokumentalak, film luzeak eta ingurumen aldizkariak eskaintzen ditu. ^m

Uzt. 25- Abuz. 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Euskal musika tresna eta jantzi tradizionalen erakusketa.** Erromoko erakustaretoa. Abuztuaren 2tik 7ra.

► **Erromoko historia eta argazki erakusketa.** Erromoko erakustaretoa. Abuztuaren 2tik 7ra

URDULIZ

► **Egur landuaren eta bolilloen erakusketa.** Kultur Etxeak antolatutako lantegietako ikasleen sorkuntzak. Uztailaren 20tik 30era.

PLENTZIA

► **Maria Pilar Sanz-en margolanak.** Goñi Portal kulturala. Uztailaren 16tik 30era arte.

GORLIZ

► **M^a Belen Inunciaga eta beste batzuen arte-lanen erakusketa.** Erakustaretoa. Uztailaren 25tik 31ra.

► **Pintura lehiaketako lanak.** Erakustaretoa. Abuztuaren 1etik 5era.

► **Marilyn Macias-en margo erakusketa.** Erakustaretoa. Abuztuaren 6tik 13ra.

► **Victor Cuadrado-ren artelanak.** Erakustaretoa. Abuztuaren 14tik 21era.

► **Elisabete Mendizabal-en margo erakusketa.** Erakustaretoa. Abuztuaren 22tik 29ra.

► **Fco. Javier Arruabarrena eta Esperanza Iglesias-en artelanak.** Erakustaretoa. Abuztuaren 30etik irailaren 6ra.

ANTZERKIA

GETXO

► **ES3IN.** Dantza-antzerki ikuskizuna, Natalia Mongek zuzenduta. San Inazio jaiei barruan. Telletxen. Abuztuaren 1ean, domeka. 19:00.

► **Deabru Beltzak.** Kale Antzerkia. Erromo eta Pinuetako jaiei barruan. Erromoko ikastolan. Abuztuaren 8an, domeka. 00:30.

BERANGO

► **Los Barruetañen en la comunión.** Kale Antzerkia. Santa Anako jaiei barruan. Uztailak 25, domeka. 19:00.

► **Euskal Herriko itxasoak.** Txotxongilo ikuskizuna. Santa Anako jaiei barruan. Uztailaren 26an, astelehena. 19:00.

► **Kutsidazu bidea Ixabel.** Santo Domingo jaiei barruan. Abuztuak 3,



► **San Lorentzo azoka**

Baserriko produktuen eguna

Abuztuaren 10ean euskal baserrietako produktuen usain, kolore, eta zapoak izango dira nagusi Algortan. San Lorentzo azokako 104 postuak San Nikolas, Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazetan egongo dira, 10:00etatik 14:30ak arte. 80 bat ekoizle ipiniko dituzte euren produktuak ikusgai, dastagai eta salgai. Eta zelan ez, sagardoa edateko eta taloa txorizoagaz dastatzeko aukera ere edukiko du azokara hurbiltzen denak. Egunari amaiera emateko, urtero lege, Biotz Alai abesbatzak kontzertua eskainiko du.

• **Non:** Algorta • **Noiz:** Abuztuak 10, 10:00etatik 14:30ra

martizena. 23:00.

ZINEMA

PLENTZIA

► **La Joven de la Perla.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 30, barikua. 22:00.

URDULIZ

► **Buscando a Nemo.** Haur zinema. Lehendakari Agirre Plaza. Uztailak 27, martizena. 10:30.

► **Piratas del Caribe.** Lehendakari Agirre Plaza. Abuztuak 3, martizena. 22:00.

► **Simbad, la leyenda de los 7 mares.** Lehendakari Agirre Plaza. Abuztuak 10, martizena. 22:00.

► **Una pandilla de Altura.** Lehendakari Agirre Plaza. Abuztuak 17, martizena. 22:00.

► **Glub.** Lehendakari Agirre Plaza. Abuztuak 24, martizena. 22:00.

► **Ejecutivo agresivo.** Lehendakari Agirre Plaza. Abuztuak 3, martizena.

SOPELANA

► **Papa Canguro.** Larrabasterra. Uztailak 28, eguaztena. 22:30.

GORLIZ

► **Afrika.** Iberrebarri. Abuztuak 1, domeka. 22:30.

BERANGO

► **Sei urte eta Trikitake.** Santa Anako jaiei barruan. Uztailak 24, zapatua. 23:30.

► **Parabellum eta Hunded (herriko taldea).** Santo Domingo jaiei barruan. Abuztuaren 4an, eguaztena. 23:00.

ERROMO

► **Banda Bassotti, Kuraia eta Konter (maketa lehiaketako irabazlea).** Erromo eta Pinueta jaiei barruan. Xake plaza ondoko txozna gunean. Abuztuak 5, eguena. 23:00.

► **MaCarraDa.** Erromo eta Pinueta jaiei barruan. Xake plaza ondoko txozna gunean. Abuztuak 6, barikua. 22:30.

► **Nazioarteko VII. Ska-reggae jaialdia.** Erromo eta Pinueta jaiei barruan. Xake plaza ondoko txozna gunean. Abuztuak 7, zapatua. 21:30.

GETXO

► **EH Sukarra, Sei urte eta Odd Heathenish.** San Inazio jaiei barruan. Txiki-Otaegi. Uztailak 29, eguena. 22:30.

► **Ghetto P'álante karibeko doinuak .** San Inazio jaiei barruan. Kasinoa. Abuztuak 1, domeka. 20:00.

► **Tapia eta Leturia .** San Inazio jaiei barruan. Txiki-Otaegi. Abuztuak 1, domeka. 20:00.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf: 460 90 31

48990 ALGORTA



20^o

ANIVERSARIO

URTEURRENA

AENOR



Empresa Registrada

ER-1891/2001

AENOR



Gestión Ambiental

CGM-02/006

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

24 UK

UK 25

namaika hide

San Vicente 2

4. solairua

48001

94 423 75 91

1

Kafe Antzokia Bilbo

2

Kafe Antzokia Ondarroa

3

Ondarroako Arrigorri itsas ostata

4

Algara konpartsa

5

Zaparrada Gaztegunea

6

Olgetan Umegunea

7

Elkartaren zerbitzu, ikaslaro eta tailerrak

8

Bakaikuko etxea

9

Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm

10

Zenbat Gara aldizkaria

11

Gara argitaletxea



namaika

aukera

[albuma]



Goitik behera eta ezker-eskuin, Aitzol de Kastro gaijartzaile kapitaina, Unai Iturriaga, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina, Andoni Egaña eta Igor Elortza: hau da, luxuzko eskifaia. Saio ikaragarria egin zuen bertsolari-seikoteak!



Jaialdian zehar, hainbat une umoretsu egon ziren, bai eta bertsolari-aktore ugari ere. Bertsozaleek erantzun bikaina eman zioten deialdiari eta olatuarena eginez amaitu zuten ekitaldia.



ALBEko Mirenék eta Arkaitzek primeran egin zuten itsas-lamiaren lana, karpapeko harkaitzaren gainetik kantatuz, eta hain leku txikian eta ahate-oinak jantzita, orekari eutsiz.





Bertso jaialdi mundiala 2004

Heldu da bertso-uda / urtero bezala, / eta berarekin bat / saio MUNDIALA!
Badira lau ezpa bost urte, bertso-ekitaldi honek ondo irabazita daukala mundiala
abizena: puntarengo bertsolariak, gai eta tratamendu berezia, leku zabal eta ederra
eta, hobe ezina, txapela kentzeko moduko entzuleria.

Aurtengo gai nagusia ITSASOA zen, eta egia esan, sei bertsolariek dotore baino
dotoreago jardun zuten ALBEko gaijartzaile-taldeak prestatutako olatuen artean.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Sei bertsolariak gogotsu etorri ziren euren onena ematera, baita eman ere! Bertso itzelak entzun genituen, umore dosi askorekin batera, saio airoso, fresko eta motibagarrian. Labur esanda, bertsozaletzeko moduko saioa entzun eta ikusi genuen.




ALBEko «Katzok» poderio handiz egin zuen itsasoko erregearen papera, sei bertsolariei puntu bana jarritz.

Leherketa Maritimoan

Alfredo Aldai

Hauxe duzue Alfredo Aldai prentsa argazkilari ospetsuaren gazte denborako lanetako bat. Artean hamazortzi urte baino ez zeuzkan, eta beti kamera aldean ibiltzen zen herrian gora eta behera argazkiak egiten. Algortan zegoela sutea ikusi zuen Areeta inguruan eta oinez eta lasterka abiatu zen hara. ETAk lehergailua jarria zuen Maritimoan. Irudi hau Alfredoren *Kodak Retinett* kamera konpaktu txikiak jaso duzue.



AREETA, 1973KO AZAROA

Betidaniko algortarra da, Arrigunagakoa; nongoa bestela? Alain Goikoetxeak 27 urte dauzka, eta bost inguru –bera ere ez da zehatz gogoratzeko– daroaz profesional. Pro, skatean esaten den bezala. Eta ez edozelangoa. Iaz hirugarren izan zen munduko onenak batzen dituen txapelketa batean; aurrean, berriz, laugarren. Oholagaz bizi da, eta oholak eskuan daroala etorri da elkarriketara. Eskumuturra minduta dauka, oholak geldiarazteko indar egitearen ondorioz, eta horri eskerrak beragaz egoteko aukera eduki du. Bestela, urrun samar ibiliko litzateke, beraren lanbideak bidaia asko egitera behartzen du eta. Aurreko gehiago barik, hona hemen berbaldian esandakoak.

Alain Goikoetxea

“Pro” baten aitormenak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Noiz hasi zinen skate egiten?
—Bederatzi urtegar, Arrigunagako aldatzetan behera, artean ez zegoelako ez skate park-ik ez ezer.
—Eta zelan egiten da skater bat profesional?
—Batez ere gogoz jardun behar da ona izateko, eta gero txapelketa eta erakustaldi batzuetan parte hartu... Ez da egun bate-tik bestera egiten. Mundu honetan sartuta egon behar da luzez. Azkenean, denak ezagutzen dituzu eta zelanbait “fixatuta” zautzate. Horra ailegatuta, babesleei dagokie proposamen bat egitea...
—Skater baten bizitza profesionala laburra da?

—Sasoiak iraun artean. Badagoz nire adinagaz uztea pentsatzen hasten direnak. Eta 30egaz utzi. Baina hori norberaren kontua da. Kontua da profesional izanda gauza arrikutsuak egin behar direla.

—Zuk zer asmo daukazu?
—Momentuz, skate egin, eta gero gero-koak. Ez dut horretaz pentsatzen.
—Zure gastu guztiei aurre egiteko eta bizitzeko behar duzun dirua babesleeta-tik dator, beraz. Hainbeste daude, eta hainbeste ordaintzen dute?
—Egon, mordo dago. Erloju, oinetako, jantzi, ohol, gorpil... markak dira. Nik neuk hiru dauzkat. Eta ateratzen da bizitzeko, bai.

—Bidaia asko egin behar duzu...
—Hara, batzuetan gelditu ezinik nabil, abioian, autobusean edo autoan sartuta,

gora eta behera beti, eta beste batzuetan, oster, lasaiago nabil, txapelketa gutxiago dagoelako, min hartu dudalako eta ezin dudalako guztietara joan... Hilabete eta erdi igaro eta konturatzen naiz ez dudala ezer egin. Edo hobeto esanda, ez naizela urrunera joan behar izan. Baina normale-na etengabe bidaian egotea da. Gehiegi estutu barik, e?

—Azken urteotan skate park ugari egin dira gure inguruan. Zelakoak begitانتzen zaizkizu?
—Arrigunagakoa, esaterako, egin berri dituzten konponketen ostean, oso txarto dago. Bizitza osoa daroagu skate park on bat edukiteko ahalegintzen, eta azkenean,

“Euskadi txarto egindako skate parken top ten-ean dago seguruenik”

hainbeste urte eta gero, konpontzea lortu dugunean, txarto utzi dute. Arriskutsua da eta ez du ezertarako balio. Diru asko erabili da, baina inongo irizpide barik egin da lan, guri galdetu barik.
—Sarritan gertatzen da hori, skatelariei ez galdetzea?
—Eraikitzaileen arabera da hori. Batzuk oso profesionalak dira, beste batzuk ez hainbeste.
—Zu beste herrialde batzuetatik ibili zara. Zelan dagoz gauzak han?
—Denetarik dago. Baina zalantza barik txarto egindakoen top ten-ean gagoz gu, skate parkei dagokienez.

—Lehiaketa guztietan parte hartzen duzu?
—Batzuetan. Babesleak eta lehiaketa antolatzen dutenak jatorrak izatea bilatzen dut. Skate boardetik zintzotasunez joka dezatela, eta skate boarden alde ekiteko antolatutako lehiaketak izan daitezela.
—Eta zer moduzkoak dira sariak?
—Oso onak.
—Horrek ere lagundu egingo du hone-tatik bizi ahal izateko...
—Bai, asko lagundu didate, egia esan.
—Zelan entrenatzen du skater batek? Zein da zure eguneroko lana?
—Autoa hartu, normalean lagunakaz, eta leku bat aukeratu. Eskailera batzuk, hesi

bat... Beti gabiltza halakoen bila. Ez dut plan handirik egiten, ez daukat skatean jarduteko ordu kopuru finko bat egune-ko, ez eta prestakuntza fisiko berezirik ere. Kirolari lez bizitzen ahalegintzen naiz, eta kito. Surf egiten dut, snowboard ere bai... Bide batez, zigarro bat emango didazu?
—Bai noski. Azken galdera: skatea bere baitari begirako mundua da? Bere musi-kagaz, bere estetikagaz...
—Ez da ona halako sailkapen zurrinak egitea, baina egia da beti egon dela halako estilo bat, kultura bat... bizimodu bat azken batean. Bidaia egin, lagun berriak aurkitu... Giro ona, berba bitan. m



Goian, Alain Goikoetxea hegan San Nikolas plazan (2003). Ezkerrean, Berangoko skate parkean (2001). Lerro hauen gainean, Alainen erretaratua (2004).



Orain dela 28 urte bezala, uztaileko lehenengo egunetan Getxoko bazterrak bete zituzten jazzaren soinuek. Talde gazteek eta puntako musikariek hamabost bat emanaldi egin zituzten ia 10.000 zaleren gozamenerako. Getxoko Turismo Bulegoak Juan Gómez argazkilari erandioztarrari jazzaldia iruditan jasotzeko eskaria egin zion. Orrialdeotan doazkizue lan zoragarri horren ale batzuk.

Argazkiak: **Juan Gómez**



MAGNUS LINDGREN QUARTET TALDEKO SAXOA (BARBARA HENDRICKS-EKIN JO ZUTEN)



CHANO DOMINGUEZ



BARBARA HENDRICKS



IGNAT UDOVINCHENKO, JAZZ SEXTET OF ROSTOV TALDEKO TRONBOIA



EUGENY RECHKALOV, JAZZ SEXTET OF ROSTOV TADEKO TRONPETA

zineeskola

Oskar Fernández

Izar berri bat aktoreen zeru handian

2004ko uztailaren batean gaueko zeru distiratsua pitintxo bat gehiago zabaldu zen izar handi batez. Egun goibel eta triste hartan zinemaren historiak izan duen aktore handienetarikoa batek azken agurra egin zigun, baina berak kameraren aurrean egindako lan bikaina eta aparta betirako gurekin gelditu da, eta berriro aukera ahal izango dugu film hunkigarriak, interesgarriak, sakonak, bikainak eta handiak ikusteko. “Un tranvía llamado deso”, “¡Viva Zapata!”, “La ley del silencio”, “La jauría humana”, “El padrino”, “El último tango en París”, “Apocalypse Now”, “Una árida estación balnca” eta beste hainbat film gure begietatik igaroko dira zirrarez beterik. Marlon Brando, lau rogei urterekin hil da Los Angeles hiriko hospital batean. Bera izan omen zen zinemaren historian zehar aktorerik hoberena. Askotan egon zen izendaturik Oskar saria eskuratzeko, zortzi aldiz hain zuzen ere, eta birritan eskuratu zuen saria. Hala ere, berak sari honi ez zion garrantzi handirik ematen. Bigarren Oskarra jasotzera joan nahi ez eta beraren orde z indiar andre gazte bat bidali zuen, indioek jasotzen zuten zapalkuntza lau haizeetara salatzeke. Brandok pataila osoa betetzen zuen bere presentziaz. Profesionaltasun osoz eta kreatibitate handiz lantzen zituen pertsonaiak. Antzezpenerako ahalmen edo gaitasun berezi eta nabarmena zuen. Aktoretzan hasi zenetik ez zuen urte asko behar izan eredu eta mito bihurtzeko. 4

Obabakoak-i laguntza

Obabakoak filma ekoizteko **400.000 euroko** laguntza jasoko du Armendariz-ek

Montxo Armendariz zuzendari nafarrak pantailaratuko duen *Obabakoak* filma ekoizteko 400.000 euroko diru-laguntza emango du Euroimages-ek, Koprodukzioen Laguntzarako Europako Funtsak. Euroimages-ek 12 film europar ekoizteko laguntzak emango ditu, 400.000 bana euro, eta laguntza hori jasotzeko aukera-tuetako bat izan da *Obabakoak*.

«Orain Films ekoiztetxeak edukiko du produkzioa gauzatzeko ardura»

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburu saritua pantailartzeko gidioa egokitu du dagoeneko Armendarizek, eta grabaketa lanak udazken inguruan hasiko ei dira. Ekoizpenari dagokionez, Oria Films ekoiztetxeak hartu du produkzioaren ardura.

Bestalde, Armendarizek orain dela hilabete batzuk azaldu zuen legez, ziurrenik Euskal Herrian grabatuko du filma, eta



Montxo Armendariz

gauzak okertzen ez badira, Juan Diego Botto eta Pilar López de Ayala izango dira protagonista nagusiak. Horren albotik, fotografia zuzendari lanetan, ziurrenik, Javier Agirresarobe ibiliko da. m

Berria > Unai Elorriagaren SPrako Tranbia pantailaratu gura dute datorren urtean

Litekeena da datorren urteko udaberri edo uda partean Unai Elorriaga idazle getxoztarraren lehen liburua pantaila handian ikusgai egotea. *SPrako tranbia* zinemara eramateko ideia jaio da, baina oraindik ere umetu, gaztetu eta heldu beharra dauka. Kontrakorik ezean, filma datorren urterako aurkeztu gura dute.



Aitzol Aramaio

Filmaren “gurasoek” ixilean eduki gura izan dute egitasmoa, baina horrelako proiektu bat ezin izaten da ezkutatu, eta haurdunaldiaren berri gutxienez eman beharra dago. Aitzol Aramaio zuzendari ondarrutarrek dauka

SPrako tranbia pantailartzeko ardura.

Filmaren aitaibitxiak, Unai Elorriaga eta Aitzol Aramaio, biak ere bere gaztetasunean ezagunak dira, baina zuhur jokatu gura dute, egitasmo hau ez delako edozelakoa. Gauza ziurra ez bada ere, filma Euskal Herriko parajeetan grabatzekotan dira. Bestalde, *SPrako tranbia* pantaila handian erdaraz jarriko dutela dirudi, filmaren produktore nagusiak ez dira-eta, seguruenik, euskaldunak izango. Elorriaga zein Aramaio, bata zein bestea euskaldunak dira, baina ez da harritzekoa filma erderaz egitea, izan ere, jakin badakigu Euskal Herrian zinema ekoizpenetan inbertitzen den diru kopurua zenbatekoa den.

Euskal literaturak eta euskal zinemak bat egingo dute beste behin, eta euskarazko ekoizpena ez bada ere, bejondiola.



La Volee D'Castors (Quebec), Sidi Samb (Senegal) eta Thalweg (Argelia-Frantzia)



Puntakoak Getxoko Folk-en

Irailaren 1etik 4ra izango da jaialdiaren XX. aldia

Getxo Folk XX. urteurrenera helduko da aurren, eta Getxora ekarriko ditu, betiko legez, munduko hainbat musika. Areetako Geltoki plazan jarriko den karpan egingo dira arratsaldeko kontzertuak (19:00) eta bertan jardungo dute jaialdiko izar nagusiek (21:30). Beste hainbat talde Santa Eugenia kaleko karpan, Munduko Terrazak deritzon txokoan, jeandaurreratuko dira (23:15). Irailaren 1ean Geltoki plazan Xuacu Amieva (Asturias) taldea izango da, eta ostean Ibon Koteron albokaria. Hilaren 2an Kukuma (Euskadi), eta Thalweg (Argelia-Frantzia) taldeek joko dute.

Barikuan, Kilema (Madagascar) taldearen ondoren Toure Kunda (Senegal) taldeak eskainiko du kontzertua. Azken egunean, hilak 4, Sidi Samb (Senegal) eta La Volee D'Castors (Quebec) taldeen txanda izango da.

Bestalde, Munduko Terrazen txokoan irailaren 1etik 4ra, hurrenez hurren, hurrengoek joko dute: Belsech Rodriguez (Kanariar Irlak), Zoobazar (Madril), Taray (Murtzia) eta Nu-beira (Galizia). Kontzertu danak doan izango dira, eta horrez gain, munduko hainbat txokotako elikagai, edari eta produktuak izango dira dastagai eta salgai. m

diskoak

The cure
The cure
I Am - Universal



Lau urte igaro dira The Cure talde britainiarak azkenengo diskoa plazaratu zuenetik. Denbora horretan, Robert Smith abeslari eta buruak taldea desagiteko asmoa ere iragarri zuen. Baina hemen dator kigu indarberriturik eta hasiera-ko ilusioagaz, eta hori pozik egoteko da. Gainera, Smith oso ziur dago: “Gustatzen ez bazaizu disko hau, orduan ez duzu The Cure gustuko”.

Un Huh Her
PJ Harvey
Universal



Polly Jean Harvey ingelesak musika munduaren errespetua lortu zuen *Dry* (92) eta *Rid of Me* (93) bezalako rock gordineko diskoei esker. *A-ha-her* (horrela ahoskatu behar ei da) lan berri hau gogorra, bizia eta ia akustikoa da, eta bertan pasioa eta amodioa nagusitzen dira. Diskoa PJK berak grabatu zuen etxean (bitartean, ilea galdu zuen), Rob Ellis bateria-jolearen laguntza bakarragaz.

Itsasoa urak handi dire
Julen Lekuona
Hirusta Records



Julen Lekuona disko berria grabatzeko asmoa eta ametsa bete barik hil zen orain dela urtebete; hala ere, senitarteok lortu dute abeslariaren azken lana kaleratzea. Disko bikoitz honek Julenen kantu berriak (1998koak) eta aspaldikoak dakartza hainbat abeslari eza-gunen eta Aritz eta Oihana seme-alaben ahotan. Lekuonari 1966an eta 1967an egindako grabazio batzuk ere badaude.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xxi)

Liburutegi
galduak

E dgardo Cozarinsky idazleak bota zidan esaldi bat dabilkit buruan bueltaka azkenaldian. Bere liburuen gainean berbetan ari ginela, “cada hombre que muere es una biblioteca en llamas”, esan zuen bere hizkera argentinarr goxoan. “Cada hombre que muere es una biblioteca en llamas”. Ezin hitz haiek ahantzi.

1974. urtean, Pinochet botereaz jabetu eta handik gutxira, Buenos Aires utzi eta Parisera abiatu zen Cozarinsky. Nahita aukeraturiko erbestaldian igaro ditu azken 30 urteak, aberriarekin harreman handirik eduki gabe. Min handia ematen zion Argentina zegoen egoeran ikusteak. Min handia ematen zion bera bezalako idazle, zinemagile zein intelektualak zigorrez zigor zebiltzala jakiteak. Baina Pinocheten aroa ere amaitu zen; jadanik ez zegoen iheska ibiltzeko arazoirik. Duela hiru urte, bere liburu baten aurkezpenaren aitzakian, Cozarinsky etxera itzuli zen. Egun batzuk igaro zituen haurtzaroko kaleak eta auzoak arakatzen. Baina ez, hura ez zen txikitan ezaguturiko Argentina. Halaxe adierazten zioten merkatu gunee berri dirdiratsuek, gazteen begiradek. Lehengo izena mantentzen duten karrikek eta bizirik jarraitzen duten agureek, horra bere garaiko Argentinatik geratzen diren aztarna bakarrak. Baina inor ez da galdutakoagatik urrikaltzen. Akaso adinekoek botako dituzte faltan aspaldiko denborak; akaso izango da jendetzaren artean Cozarinskyren antzera oroimenaren balioaz ohartzen denik. Hain zuzen, horregatik ekin zion berak idazteari. Suteari aurre egitearren. 4

Santxo Jakituna fundazioa

Gasteizko erakundeak sarean ipini du bere ondarearen zati bat

Pixkanaka-pixkanaka, batzuen zein besteen ekimenaren bitartez, euskarak eta euskal edukiek gero eta leku handiagoa daukate sarean. Hain zuen, Internetek aukera paregabea eskaintzen du herri honen izaera eta ondarea munduan zabaltzeko orduan. Ikuspegi horrek akuiturik, asko dira azken hilabeteetan sare-ratu diren proiektuak, besteak beste, Mikel Zarateri buruzko web orria (Susa argialetxearen, Zorritzeta Euskara elkar-tearen eta Lezamako udalaren elkarlana-ren emaitza da www.mikelzarate.com), zein berriki Santxo Jakituna Fundazioak eratu duen liburutegi digitala. Hain zu-

«Erakundearen 12.000 dokumentuetatik 3.000 kontsultatu daitezke»

zen, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak eta Gasteizko erakundeak hitzarturiko akordioari esker, sarean da Fundazioaren ondarearen parte bat. Gaur egun, Santxo Jakituna Fundazioak 12.000 dokumentu gordetzen ditu. Haietarik 3.000 aurkitu-ko ditu erabiltzaileak www.euskadi.net/liburutegidigitala helbide elektronikora joz gero. Aipatu ditugun dokumentuak




www.euskadi.net/liburutegidigitala

XV. mendetik 1934. urte artekoak dira; azken 70 urteetako lanak Jabetza Intelektualaren legeak babesturik daudela-eta ezin dira edonola argitaratu. Era berean, Fundazioak 800.000 argazki sarreratu ditu.

Denborarekin, Santxo Jakituna Fundazioak sareko liburutegia handitzen joateko asmoa dauka. Une honetan, 4,5 milioi irudi inguruk osatzen dute erakundearen ondare digitalizatua, baina bai haiek bai saretik at geratu diren 8.000 dokumentuak fundazioak Gasteizen daukan egoitzan (Zulueta jauregia, Paseo de la Senda, Gas-teiz) bakarrik kontsulta daitezke. m

liburuak



Magoaren gatibua
Michel Girin
[Ibaizabal](#)

De-Del, hamabi urteko neska filipinarra, mago bati saldu diote. Hans Ackefors europarrak hau-
ren trafikoaren atzean dagoen gaizkile taldea agerian utzi gura du. Neskatoaren lekukotasuna erabakigarria izango da bere helburua lortzeko. Liburu honek gazte literaturako UNICEF Sari Handia irabazi du Frantzian.



Diane & Koplak
Joan P. de Lazarraga
[Erein](#)

Patri Urkizu idazle eta irakasleak prestatu du Perez de Lazarraga gaztearen 1567ko eskuizkribua-
ren lehenengo edizio kritikoa. Euskaraz idatzitako lehenengo euskal nobela (Diane), eta poeta laiko batek (Lazarragak, alegia) moldatu zuen euskaraz-ko lehen poema bilduma (Koplak) jaso ditu liburu berean.

Telebista >

Canal Vasco ikerketagai


Josu Amezaga irakasle algortarrak latinoamerikako euskaldunengan kate honek duen eragina aztertu du

Canal Vasco EITBk Euskal Herritik, His-pasat satelitearen bidez, Latinoamerikara igortzen duen telebista katea da. Kate honen bitartez, euskal diasporak euskal telebistaren eskaintza jasotzen du itsasoaz bestaldean: *Teleberri*, *Sorginen Laratza*, *Politicamente Incorrecto*, *Lo Que Faltaba...*

Josu Amezaga EHuko irakasleak Canal Vascok latinoamerikako euskaldunengan daukan eragina aztertu du, eta horren ondo-
rioak batu ditu *Satelite bidezko nortasunak* liburuan. Amezagak berak azaldu digun legez: “*Latinoamerikako euskaldunek satelite*

«Gero eta gehiago hitz egiten dute Julio Ibarrek emandako azken albisteez»

bidezko euskal telebista nola erabiltzen duten aztertzean, euskal diasporaren gaurko erreali-tatea hobeto ezagutu nahi izan dugu, eta, horrekin batera, Euskal Herrian ditugun beste diasporez ere hausnartu”. Argentina eta Venezuelako Canal Vascoren hartzaileen artean egin zen azterketa, 2002an, eta hona hemen Amezagak goraipatutako ondorio batzuk: “*lehenago diasporako euskaldunentzat Euskal Herria gehienbat inagana bazen (oroit-*



Argazkian, Josu Amezaga. Erdarazko itzulpena: www.ehu.es/komunikazioa/argitalpenak.htm

zapena), gaur egun oraina da: euskal etxeeta-ko solasaldietan ez dira arbasoen jazoerez mintzatzen soilik; gero eta gehiago Julio Ibarrek emandako azken albisteez solasten dira. Honek aldaketa handia dakarkio eus-kaltasunaren bizipenari. Bestalde, batzuek euskal nortasuna berrindartzeko osagaiak bilatzen dituzte Canal Vascon, eta beste bat-zuek gordeta dauzkaten euskal hazia ernatze-ko gutxieneko osagaiak aurkitzen dituzte”. m

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

EITB > milioi eta
erdi jarraitzaile

EITB taldeak uztail hasieran bere web orrian jakitera eman zuenez, egunero 1.476.000 lagunek jarraitzen dituzte EITB taldeko komunikabideak. EGMk (Hedabideen Ikerketa Orokorrak) kaleratutako datuon arabera, irratien alorrean izan da gorakadarik nabarmenena: Euskadi Irratiak eta Euskadi Gazteak bataz beste iaz baino 30.000 entzule gehiago dauzkate (%20 egin dute gora) eta orohar egunero 130.000 entzule dauzkate biek batera. EITB musika eta kultura irratiak ere gora egin du, eta 17.000 entzule inguru dauzka egunero. Radio Euskadik bereari eusten dio (250.000 entzule), eta Radio Vitoria nagusi ei da Araban. Bestalde, ETBko telebista kate biek milioi bat ikusentzuletik gora dauzkate: ETB-1ek 291.000 eta ETB-2k 765.000.

Informazio gehiago: www.eitb.com



aldizkaria etxean
jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Arrieta 6, 4. solaria 5. bulegoa / 48900 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis Esgintzeak

× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat **debalde**
irabaziko du!!

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 417 67

deitu!
94 49113 37

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[sarean]

Udan ere ikasi!

Hiru.com webguneak makina bat gairen inguruan askoz gehiago **ikasteko aukera** eskaintzen du

Uda bete-betean gaude. Eta, nahiz eta uda hau oraingoz ez oso beroa izan, badi-rudi liburuak alde batera utzi nahi ditugu ahal bezain laster, ala ez? Bada, gauzak ez dira beti horrela izaten: horra hor, adibidez, UEUK eta EHUK antolatzen dituzten udako ikastaroak. Ildo beretik, Interneten aurki dezakegu Eusko Jaur-laritzak sustatutako *Hiru.com* webgunea: udan ere gauza berriak ikasteari ekin die-zaiokegu horren bitartez.

Webgune honetan euskarazko zein gaztelaniazko eduki mordoak aurkituko dugu hainbat gairi buruz gehiago jakiteko, besteak beste, matematika, fisika, kimika, biologia, literatura... Bai eta eguneroko bizitzan lagungarriak izan dakizkigukeen testuak. Zein da atari honen asmoa? Eurek esaten duten moduan *“euskal hiritarren prestakuntzarako erreferente*

bilakatzea eta hiritarrei laguntzea euren jarraera aktiboa eta parte-hartzailea sendotuz”. Horretarako, doako edukiez gain, sarearen bidezko tutoretzak jaso ahal izango ditugu.

Egileek azpimarratzen dute webgunea egitasmo zabalago baten lehenengo urratsa baino ez dela, eta hemendik aurrera atari zabalagoa eratu nahi dutela, *hiru.com* hezkuntzarako benetako sarbide telematiko bihurtu ahal izateko. m



webgida

KONGRESUA

>www.ehu.es/kongresua

Abian da Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuaren webgunea. Bertan irailean izango den topaketaren berri jasoko dugu zuzen-zuzenean. EHU, UEU, Topagunea, Euskal Idazleen Elkartea eta Berria egunkariak antolatu dute ekimen hau.

MUSIKA

>Muicplasma.com

Idea bitxia eta ondo antolatuta: zure gustuko musika taldea idatzi, eta webguneak berak horren antzeko taldeak iradokiko dizkizu. Gustuko musika topatzeko modu berria.

Sarean aurkitu ditugu > Denetarik



Koldo Isusi > bizkaie.biz web guneko zuzendaria

“Inork ez deko asmoa paperezko aldizkariari lekua kentzeko”



Koldo Isusi Larrabasterran bizi da orain lau urtetik hona

Koldo Isusi bilbotarra da, amari zor dion Errigoitiko berbakune petoak jende asko nahasten duen arren. Kazetaria da, eta irratian egin zituen lehen pausuak lanbidean. Hamabi urtez egon zen Bizkaia Irratian, hain zuzen, *bizkaie.biz* aldizkari elektronikoa zuzentzeko eskaintza ailega zitzaion arte. Azkenean, ondo pentsatu ostean, *bizkaierazko webgunea* gidatzea onartu zuen lau urtetik hona Larrabasterran bizi den Isusik.

—Oso bestelakoa da web orri baten lan egiteko modua beste komunikabide batzuk konparatuta?

—Nik ezagutzen dotena irratia da, eta jakina, alde handiak dagoz. Irratian askoz be komunikazino azkarragoa dago, kanpoko jendeagaz hartuemon askoz be estuagoak. Aldizkarian askoz denbora gehiago dago gaiak aztertzeko, konparatzeko.

—*Bizkaiek* hiru urte baino gehiago daroaz sarean. Zelako harrera eduki du?

—Entzun doguzan kritikak nahiko onak

izan dira. Pausuak emoten joan gara, gauzak hobetzen, eta hasieran baino askoz be produktu hobea eskaintzen dogu gaur egun.

—**Neurtzen duzue bisitari kopurua?**

—Egin dogu pare bat azterketa, bata hasi eta ia berehala. Nahiko erantzun ona hartu gendun hor. Buruz nabil, baina sei edo zazpi hilabeteko tartean, 90.000 bisita izan genduzan. Benetan pilotxoa da. Eta hori datu inportantea bada be, beste datu bat azpimarratu gurako neuke nik: bisiten batez besteko iraupena. Halako argitalpen digitaletan

nahiko laburra izaten da: lau edo bost minutu, eta gurean hamahiru minutura ailegaten zen batez bestekoa. Horrek esan gura dau jendea sartu eta bertan ibiltzen dala, atalik atal, gauzak irakurten.

—**Badaukagu aldizkari elektronikoetan informazioa bilatzeko ohitura, kioskoak ikusteko daukagun bezala?**

—Inork ez deko asmoa paperezko aldizkariari lekua kentzeko. Maila berean jartea be ezinezkoa da. Hasieran ikusi gendun Interneten hutsune bat egoala. Bizkaieraz ez

«Batuaz idatzi behar danean arazoak badagoz, atera kontuak bizkaieraz»

egoan ezer, euskeraz bere askorik ez dago eta! Lan handia dago egiteko. Baina ez paperari kontra egiteko.

—**Alternatiba ez bada, osagarria izango da behintzat..**

—Kontua da beste tresna bat dekogula hor, eta erabilteko dago. Gainera, etorkizuna hor ikusten da. Beharbada belaunaldi batekook arazo gehiago euki geinkez holako tresna bat erabilteko baina gazte jendea gaur egun Internetegaz dabil danetarako. Orduan, zergatik ez aldizkari bat bizkaieraz?

—**Idazteko momentuan arazoak edukiko dituzue. Arau eza igartzen da?**

—Jakina, bizkaiera ez dago araututa. Batuaz idatzi behar danean arazoak badagoz, atera kontuak bizkaieraz. Normalizazino prozesu horretan be, garautxo bat iminten gagoz, Labayrugaz batera, Bizkaia Irratiagaz batera... Badagoz ahaleginak. Akaso, Euskaltzaindiari eskatuko neuskio zeozter gehiago egitea euskalkien alde, orain arte ez dabelako lar egin. Azpieuskalkiak eta euskalkiak ondino nahiko bazterrean dagozala pentsaten dot. m

ápatxe!

“*Zer, indio kontuetan zabize, ala?*” pentsatuko dozue zuotariko askok ezelango ezbai barik. Lasai irakurleok, oraindino udek ez deusku horrenbeste kalterik egin-eta. Halan eta duzti bere, urtaro honek umeakaz “apapan” edo “atatan” urteteko, paseateko, abagune ederra emoten deuskula argi dago, eta “señe” (haurra) nekatuta dagoenean iko baten gerizpetan “ápatxe” egin, deskantsa eta apurke-apurke ostabere etxera. Artikuluari uzena emoten dion berba honek ez deuko AEBetako jatorrizko herri horregaz zer ikusirik, izan ere “ápatxe egin” eta jesarri sinonimoak dira. Igerri dozue, seguru, zeren gainean gabizen, ezta? Agerraldi honetan, bai Getxo bai inguruko herri batzuten umeakaz erabili diren berba batzuk ikusiko doguz.



Edozein umek maite izaten deu kaleetan **tipi-tapa** ibiltea, baia ibilten hasi baino lehen etxeko duztiri agur esan behar dake sarri askotan, bai eta **pa emon** bere, mosuak. Ume duztiak ez ei dagoz prest edonori pa emoteko, baina badagoz beti inori mosu emoteko gai direnak, **mosu-merke** esaten jake. Honek, normalean, sein **mozoloak** izaten dira, baketsu eta lasaiak, ez ostera potzuetan **plisti-plasta** kolpeka ibiltzen diren **kakelo** horietakoak, arropak zikintzen dabezan okertxuak. Esaten ohi da txikerratan **lau txakurren** hasten diren momentu beretik, hau da, zutundu arte katuka ibilten diren momentutik, jakin daitekeela zelango izakera dakarten seme-alabak, eta duda barik guraso duztiak gura dabe euren

umea berehala **lolo** egiten hasten dan horietakoa izatea; ez, ostera, negarrez eta **bilin-bolaka** edo txirinbuelbaka hasten diren modukoa, ezen horiek aukera asko deukez edozein basa piloren gainean **plausta** egiteko eta ea gero nor ausartzen dan **aupa** hartzen.

Bai lehengo denporetan bai orain ere,ume **kokolo** edo inuzenteenek gurasoen ardura handitu egiten dabe, ezelango **pupu** edo minik hartu ez daien ezbehar baten. Hala ere, sein lasaienak ere okerkeriak egin leiz eta antzinako amamek esaten ebenez, komeni da **tas-tas** apur bat emotea eperdian, gauzak bere neurrian finkatuteko. Umea negarrez hasiz gero ez dago konponbide errazik, **txerak** edo laztanak ugerituz edo

agian **kili-kili** batzuk eginez ostera ere barrez hasi leiteke, baina ez da gauza segurua.

Beste alde batetik, orain urte batzuk ez egoan hainbeste Bollycao eta halangorik eta umeak etxetik urteten eben "papa" (ogi) eta **koko** (txokolate) zati banagaz kalerik kale olgetan segiteko prest. Lantzean behin baten batek **pitxi** edo gauza polit bat eskuratzen eban eta arrapaladan joaten zan lagunengana,

«**Badagoz beti inori mosu emoteko gai direnak, “mosu-merke” esaten jake»**

aurkikuntza erakusteko. Umerik **potolotxuena** ere yusturia baino bizkorragoa da holangoetan. Orain auto gehiago dagoz, baina lehen ez egoan hainbeste arriskurik eta **señe** ugeri ikusten zan kaletan, gaur egun **mitxiño** solte batzuk baino agertzen ez diren bitartean; sasoi modernuen ezaugarria?

Amaitzeko, gurasoak zarien guztioi aholku bat emongo geunskizue: kontuan hartu umeak **papatak** edo zapatak ondo lotuta ete deukozen, ez dagiala lurrera **punbala** egin lokarria zapalduta; konforme? ^m

Esakere “Amen baten akaba”



Askotan entzun dogu abiada handiko sasoien bizi garala, dana behingon, karraderan, txispatan, egiten dala gaur egun, baia badauz gauza batzuk beti pasa direzenak kasik begiri ikusteko denpora emon barik: katuk sardiñe eron, makarra batek burruka bat hasi, patxaranak mozkortu, telebi-siñoko dokumentalakaz lo hartu, edo gaurko irudin legez, tximinon supermerkatun bananak akaba, dana behingon-behingon, **amen baten**, pasaten da...

(Iñaki Gilisastik baturiko esakera bat dozue hau. “Urduliz aldeko berba lapikokoa” liburun topako dozue)

Gureberbakea

UDERA KO ESAKUNE BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Hau azkeneko UK dogu uden osterarten, halan da ze hamen dekozuez esakune batzuk ondo etor leitezenak uden egiten direzen gauzatarako:

Ligateko

—Zéozer sartu dast begire, áituko dostezu *ia* zer dan? Nik áukikotsut édari bitarten...
—Eztot ikusten ezer ba...!
—Arríma zatez apur bet glau arpegire, *la*...
—Hólan?
—Bai, hólan, hólan...!

—Krémetsu ber dot nik egúzkik erre eztaisten... émongostezu zuk átzeko alden?
—Nik? Zéitik eztotsezu ésaten zure óndoko laguneri?
—Erdi lo dau gixajo, lástime émoten daust ixértute...
—Bueno ekázu ba, krémetsu, ta emóixu buélte... Hólan gure dozu?
—Bai, hólan, hólan...!

Egarri eta gose kentzeko

—Posture egiten dotsut katxi bet gin tonic kapaz názela txanogorritxun kóntu osorik bóta-
teko... berba gúztik átzetik áurrera imínte!
—Bale!
—Rano azzo txurrigonotxa? Sane tseneu aktsoo ritxurrigonotxa manmaa kotxee denbi laadoa...

Galdu direzen lagunek atzera topateko

—Ikus dozu morroi bet arrantzálen alkóndareaz, fraka bakérukez eta yáietako pañéluez?
—Morroi bet? Millé dabiltzez hólan yantzíte hemen ingirun!
—Bai, baia hau artez-artez dabil, mósto baño eztau édaten eta!
—*¡*Ordun bai, ikus dot bat artez ibilten, baia nahiko aspaldin...

I

I aki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ^{ETA} TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plazaT: 4302345
Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Teletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBEkumeak

Egin behar bada, egin egingo dugu!

Uztailean gaude eta aspaldi amaitu da ikasturtea. Beraz, haxe izango da gure akabuko artikulua, irailera arte behintzat. Amaitzeko, Erromoko Eskoletako 5. mailako beste taldea ekarri dugu, Itxasoren ikasleak. Beraz, ondo pasa oporrek eta irailera arte!

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **A. Mentxaka**

Aurreko alekoak bezalaxe, ikasle hauek orain lau hilabete eskas hasi ziren bertsoan. Asko kostatu zaie bertsoaren inguruko dinamika hartzea, baina apurka-apurka lanak fruitua eman du, eta ez edozelakoa gero!

Lasai-lasai hasi ginen gauzak ikasten eta geure buruko «disko gogorrean» gordetzen. Egia esan behar bada, alfertxoak badira, nahiz eta eurek kontrakoa esan behin eta berriz. Motorrak berotzen dituztenerako, batzuetan eskola amaituta egoten da. Denboraren poderioz, animatuz joan dira eta koplak eta bertso politak egin dituzte.

Penatuta gelditu ziren Euskal Egunean ezin izan zutelako abestu, baina «bertsoak gordeta dauzkagu beste batean abesteko, Nahikari!». Ikusten duzuenek, hemen ber-



Erromoko Eskoletako 5. mailako bertsoaritzat-taldea

tsuak ez dira alperrik egiten. Oso ondo ikasia dute bertsoak abesteko direla eta ez pape-rean uzteko. Hauek ere, ALBEko gazte-
txoak kantuan eraman genituenean, harrituta geratu ziren. «Jo! Eta gu kapazak izan-

go ote gara inoiz horrela abesteko?» Jakina, ba! Bidean dira bertsolari handiak izateko. Lehen pausoa eman dute-eta, eurek esaten duten moduan: «Egin behar bada, egin egingo dugu!» Animo gaztetxook!

«Bertsoak gordeta ditugu beste batean abesteko, Nahikari!»

ALBEko irakaslea



Nahikari Ayo

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Nik nahiko nukeena ez al da nabari? Gazteek jarraitzea jo ta ke kantari, Getxon izan dezagun hainbat bertsolari.

Lau oinak emanda

Irakasle izatea ba al du **merezi**? Hainbat gaztetxo ditut nik bertsoan **hezi**. Horietako asko badira **berezi**, gainera badituzte hainbat **abilezi**.

Azken puntua emanda

Bertsotan irakatsi dizuet, baita ere ondo kantetan, ederto baten pasatu dugu ta ez nabil gezurretan. Barre algarak egin ditugu ahal izan dogun denetan, **une ahaztezin guzti hoiengatik** zuekin nago zorretan.



INGELESEK

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



ESPAINOLEK

espainolez irakurtzen dituzte eguneko berriak



FRANTSESEK

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



Egin zaitez harpidedun:
943 30 43 45
harpidetza@berria.info

HARPIDEDUNEN
ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak

Euskaldunok behar dugun **berria**



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txipiroiak

kipula eta onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain bakana da. Hala ere, lortzeak eskatzen duen ahaleginak merezi duelakoan nago ni. Hasteko, txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, eta gero ondo garbitu. Irinetik pasatu ostean oliba oliotan salteatu. Nik berakatzagaz batera egiten ditut, hasieratik zapore hori har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondoren go olio berean, julianan zatitutako kipula egiten jarri su ahulean. Eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo beltzak aparte salteatu behar dira, eta eginda daudenean bestearekin nahastu. Ez zaizue damutuko! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)
800 gramo Abrako txipiroi • 400 gramo onddo beltz • biru kipula
koñaka • oliba olio • irina • gatza • arrain salda



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardoa edateko tenperaturak

«Tenperaturak eragin handia dauka ardoa edateko orduan; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake»

- Ardo zuri eta lehorrak
8°-10°an edan behar dira. Zenbat eta tenperatura altuagoa, gehiago igarriko dugu alkohola; tenperatura baxuagoetan, garraztasuna.
- Ardo zuri gozoak
6°an gutxi gorabehera edan; tenperatura honetan espresio gozoa eta frutazkoa nabarmentzen da.
- Ardo gorriak
9° eta 12° bitartean, beltzetik ala zuritik, zeinetik hurren dauden begiratuta.
- Ardo beltz arin eta gazteak
12° eta 16° bitartean, euren aroma eta egitura nabarmentzeko.
- Ardo beltz gorpuzdunak
14° eta 17° bitartean, euren gorputza hobeto igartzeko.
- Ardo beltz zaharrak
17° eta 18° bitartean, horrela euren bouquet eta espresioa hobeto antzemango ditugu.

Arrantzale taberna

Algortako Portu Zaharreko bihotzean



Joseba Gallastegi eta Jeru Gomez

Algortako Portu Zaharra txikito bat edateko, mokadutxu bat jateko zein terraza batean lasai egoteko leku paregabea da. Bertako plazan dagoen Arrantzale tabernak plazer hori gozatzeko aukera eskaintzen digu bai udan eta bai eta neguko asteakabuetan ere. Hainbat urte dauzka Arrantzale tabernak, baina orain lau urte Joseba Gallastegik eta Jeru Gomezek hartu zuten. Lehenago ere Portu Zaharrean bertan beharrean ibilitakoak dira, eta betidanik ezagutu duten giroari eusten ahalegintzen dira. Horrela, pintxo landuak eta errazioak eskaintzen dituzte, batez ere itsasoko produktuak oinarri hartuta. Adibiderako, izokinak eta antxoez betetako berenjenaz

egindako pintxoak, antxoenak, kabrarroka budinekoak eta abar dasta ditzakegu. Errazioetan ere eskaintza zabala: rabak, amarratza, tigreak, antxoak, makailuz betetako piperrak, Idiazabal gazta, odolkia eta txorizoa... Jeruk dioenez, eguzkia da euren bezerorik onena, izan ere, hura agertzen denean biltzen da jende gehien. Hala ere, algortarrei Portu Zaharrera gehiagotan joateko deia egiten die Jeruk, “asko, bertako jaiak direnean edo eta kanpotik lagunak bat etortzen zaienean baino ez dira Portu Zaharrera jaisten”. ^m

ARRANTZALE TABERNA
Portu Zaharra 3
Telefonoa: 94 460 12 44

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asado r



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak nornberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu
etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

JATEKO
jateko
• urdaitegia
• frutadenda
• elikagaiak
Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

Taberna Berni
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37


OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94


VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA t  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Jaietarako alkandora prestatu duzu? Ez? Ba aurten ere alkandora txukun barik jai duzu. Azken hilabeteotan saiatu zara haregaz berba egiten, baina batzuetan hori lortzea ere ezinezkoa da.	OTSOA t  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Anaia-arrebakaz aspaldian ez zara egon, eta ez daukazu haien berri. Zer moduz afitxto bat edo bazkaritxo bat? Ideiak amaitzen direnean ez dator gauza onik. Irudimena behar beharrezkoa duzu aurrera egiteko.	ADARRA t  (Otsailak 19 martxoak 20) Ugazabak aurpegi txarra ipini dizulako beldurtuta zaude, <i>Adarra</i>; jaramonik ez, pasatuko zaio-eta. Bihotz oneko pertsona izateak gauza onak baino ez dizkizu ekarri; horrela jarraituta, zerura joango zara.
AITZURRA t  (Martxoak 21 apirilak 19) Ettxeko belarra mozteko ere ez daukazu adorerik; sega apustuan egiteko orduan gaizki, ezta? Euliak eztria doazen moduan joaten zara zu harengana, eta hori oso argi ikusten du berak, ezikusiaarena egiten badu ere.	HOSTOA t  (Apirilak 20 maiatzak 19) Mendi magalean tontorrera ailegatzea zail ikusten da, baina bidea egiten hasten denean tontorra hurbilago dago. Horren aurpegi lirainagaz maitasun kontuetan iaioa zara; dena den, oraingoan ez dizu balio izan.	EGUZKIA t  (Maiatzak 20 ekainak 18) Neke aurpegia jartzen doakizu egunetik egunera; beharbada opor batzuk hartu beharko zenituzke. Albokoari ez diozu begirik ere kentzen; azkenean zerbait esango dizu, nabarmenegia zara-eta.
GARIA t  (Ekainak 19 uztailak 18) Gezurak esatea barkatzekoa da, txikiak badira behintzat; zuk botatzen dituzunak, berriz, ez dira halakoak. Horrenbeste itxaron duzun eguna heldu da. Espero zenuena bete da? Ez? Pena da gero!	LASTOA t  (Uztailak 19 abuztuak 17) Zure lagun hori ez da hain zoragarria, baina badauka zerbait, eta zorte apur bategaz, ohartuko zara. Ziztu bizian joatea gustuko duzu, eta halako batean ezustekoa hartuko duzu. Arretaz gidatu, <i>Lastoa</i>.	IRATZEA t  (Abuztuak 18 irailak 16) Aspaldian ikusi ez duzun lagun bat ikusi-ko duzu aurki; beharbada, aspaldiko harreman hura berreskuratzeo aukera izango duzu. Bekaizkeria gaixotasun okerrenetakoa da, eta sendatzea ez da batere erraza. Kontuz ibili bekaizkeriagaz!
META t  (Irailak 17 urriak 16) Errieta besterik ez diozu egiten bikoteki-deari. Noizean behin laztan bat edo musu bat ematea ez zaio gaizki etorriko; gainera, eskertuko dizu. Bizilagunen artean hobe da harreman ona edukitzea; bestela, eguneroko bizitza asko gaiztotu daiteke.	HAZIA t  (Urriak 17 azaroak 15) Gero eta bakartiago ikusten duzu zeure burua. Zerbait egin behar duzu bakardade horregaz amaitzeko. Zoaz azkar den-dara, oraindik ere opari bat eros dezakezu-eta. Baina zelan ahaztu duzu bere urtebetezea?	NEGUA t  (Azaroak 16 abenduak 20) Ondo jokutzen duzula uste duzu, baina hala ere ez zaitu inork ere ulertzen. Zer gertatzen da? Beneneten esan zenion uste zenuena; dena den, ez dizu jaramon handirik egin, ezta?




mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak									
V	I	A		V	I	H	O	Z	
O	W	L	E	T		I	P	A	
D		I	R	A		U	A		
	A	R	A		L	I	Z		O
V	U	T	A	K	I	Z	T	I	K
S		A	Z		E	T		G	E
T	O		A	B	I	N		T	R
V	N	E	R	T		V	A	R	S
K		N	O	Z	I	G	V		O
V	N		U	G	I	L	A	Z	B

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Orain dela ia 20 urte herbestean bizi den iurretarra
- “Hnuy illa nyha majah yahoo” poema liburua idatzi zuen
- Espainiako narratiba kritika saria jaso zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Bob Marley

> Irabazlea: **Ikerne Iurrebaso (Sopela) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf: erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



Algortako “Jupiter” futbol taldea, 1954

Ezer gutxi jakin ahal izan dugu irakurle batek helarazi digun argazki honi buruz. Algortako lagun talde bat ziren, Jupiter izeneko futbol taldea osatzen zutenak. Talde honek Getxoko Azkorri taldearen aurka jokatu zuenekoa duzue goiko irudia. Partida bana amaitu ei zen Jupiter taldeko Intxaustik penaltiz markagailua berdindu eta gero. m

Lehenengo lerroa: Javier Sarria M, Jokin Garate, Angel Alvarez.

Bigarren lerroa: Valen Heredia, Angel Intxausti, Joseba Etxebarria, Javier Sarria L., Juanjo Ayo, Agus Argaluz.

Hirugarren lerroa: Joaquín Bidarte, Jesus Ayo, Juan I. Zalduondo.

Laugarren lerroa: J. R. Artola, Juan Arenaza, Ramon Sarria L., Kike Prieto, Mikel Salaberria, Josu Sarria.

Bosgarren lerroa: Gabi Sarria M., Iñaki Sarria Z., Pedro Iturriaga.

Seigarren lerroa: Emilio Uriarte, Manolo Jimenez, Angel Gomez.

JULIAN IANTZI > aurkezlea

“Ez dut negarrik egiten, baina hagitz hunkitu nintzen alaba jaio zenean”

Testua: **Jon Urresti**



Definitu ezazu zeure burua berba bitan.
Alaia eta, nafar on bat bezala, burugogorra.

Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera?
Porno batean (barreak). Txantxak alde batera utzita, abenturazko edozeinetan: *Indiana Jones*...

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Ezeren truke besteen alde lan egiten dutenak, beraien bizitza galtzeko arriskua eduki arren: Gandhi, Kalkutako Teresa...

Aitortu dezakezun bizio bat.
Sexua (barreak), edo bazkalondoko bi txokolate-ontza.

Oporretara joateko lekurik aproposena.
Kuba. Hango errealitatea ikustea gustatuko litzaidake.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Behin egiten badidate, edozer barka dezaket, baina beste aukera emanda hala ere errepikatzen badute, bigarren hori ez dut barkatzen.

Zer janzten duzu lo egiteko? Pijama motza edo luzea.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Mugikor madarikatua eta besterik ez.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena. Lesakako San Ferminetan, zazpi hanburgesa, arrapaladan jateko. Oraindik bihotzerrea daukat (barreak).

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean? Munduan denok daukagula ahora zer eraman. Mundua hagitz gaizki banatuta dago.

Ohitura txarren bat... Konfiantza gehiegirekin gidatzea: esku batekin...

...eta sineskeriaren bat. Oinetakoak eta galtzetinak janzterakoan, lehenengo ezkerrekoa eta ondoren eskubikoa janztea.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Ez dut amets askorik egiten, oso praktikoa naiz, eta hankak gaurkoan ditut jarriak.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Ez dut negarrik egiten, baina hagitz hunkitu nintzen azken aldia nire alaba jaio zen egunean izan zen.

Zure azken erokeria. Gaupasik ez egiteko etxeko zapatilekin etxetik ateratzea, eta hala ere, koadrilakoekin asteburuko gaupasa egitea. Gaztea nintzen! ^m

LABURREAN— Bere buruagaz oso kritikoa denez, akatsei erreparatzen die beti, “nire ingurukoek ongi ikusten nautela dioten arren”. Ezin dezake alaitasun barik bizi, eta heavy metal-a du gogoko. Parrandazalea ere badela esan zigun AEBetan jaio zen Julian lantzik (Woodland, Kalifornia, 1967): “*Aitak 22 urte egin zituen bertan lanean, hasieran artzain eta gero arrantxo batean. Nik zazpi urte nituela etorri ginen Lesakara*”. Informatika ikasketak egin zituen (“beti makinen artean!”), eta ostalaritzan, Lesakako lantegi batean, garraio-enpresa batean eta aseguruak saltzen egon ostean, Julianek telebistara egin zuen jauzia familiak bultzatuta: “*Nahiko saltseroa ikusten ninduten, omen*”. Orain dela hiru urte hasi zen ETBn, eta dagoeneko saio askotan jardun du aurkezle: *Agur Ben Hur*, *Basetxea*, *Begia Gose*... Horietan guztietan euskaraz egin du behar; orain, berriz, Julian gaztelaniagaz zelan moldatzen den ikusteko parada daukagu astelehenero *La Flecha Amarilla* lehiaketan. Eta oraindik ere arraro xamar egiten zaigu.

